

Door-to-door, porte à porte, porta a porta

Hondakinak atez ate



- **Ortorexia** Ongiegi jan nahi izatea kaltegarria izan daiteke
- **Corrado Masacci:** «Txotxongiloaren mundua beste kulturak ezagutzeko modua da»
- **Larrun gehigarria** Ekologia politikoa
- **Net Hurbil** Ayiti-Haiti, azken ostikada globalizazioaren biktimari
- **Joaldunak** Desadostasuna Ituren-Zubieta eta gainontzeko taldeen artean

NOBEDADEA

Kosmoiet

Izarretako misioa

Hemen duzu planeten misterioak argitzeko mahai jolas berria.
Bihur zaitez espazio-ontzi azkar baten pilotu eta konkista itzazu Lurra eta Eguzki sistemako beste planetak.



+8



2-4



40-60 min.

29 euro

ARGIAren harpidedunek
%15eko deskontua

Luditoys

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

- 4 Deabruaren abokatua: Mikel Pagadizabal.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 15 Venezuelako krisia. Bolibarra-barra.**
Joseba Barandiaran.
- 16 A gripearen kudeaketa. Ikararen txertoa aztergai.**
Mikel Garcia.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
- 20 Ttakun (h)errenka. Aukeran, prest.** Ana Urkiza.
- 21 Libra gaitzatela epelkeriatik.** Joxerra Aizpurua.
- Politikari.** Joxemari Ostolaza.
- 22 Far Westeko Euskal Herria.** Pako Sudupe.
- Baietz lehenago izan.** Amatiño.
- 23 Zirtak. Hau mundu zonbi hau.** Angel Erro.
- 24 Bertso berriak. Hernaniko bertsolaritzari jarriak.**
Jexux Mari Irazu.

Erdiko kaiera

- 28 Bidehuts. Hutsik dagoen bidea betetzen.**
Lander Muñagorri.
- 31 Diskoak.** Iker Barandiaran.
- 32 Liburuak.** Igor Estankona.
- 33 Denbora-pasak.** Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
- Ezpalak.** Jon Torner.
- 35 Abarrak.** Mikel Garcia.
- 36 Zientzia eta teknologia.** Joxerra Aizpurua.
- 37 Landareak.** Jakoba Errekondo.
- 38 Denboraren makina.** Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 44 Valentziarrek TV3 ikusi nahi dute.** Onintza Irureta.
- 46 Bero-beroan.** Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
- 48 Net Hurbil. Ayiti-Haiti, globalizazioaren arragoa 1492tik.** Pello Zubiria.

Azkena

- 50 Eguraldia gorabehera.** Santi Leone.

39 | Atez ateko hondakin bilketa | U. Apaolaza

Zubietako (Gipuzkoa) erraustegiari buruzko eztabaida pil-pilean dela, Usurbilgo erredua bere egin dute Hernanik eta Oiartzunek: atez ateko hondakin bilketa ezartzeaz dago bi udalerriotan. Gipuzkoako ez ezik, nazioarteko beste adibide batzuei ere begiratu diegu erreportaje honetan.



5 | Ortorexia, ongi jatea obsesio

Jon Torner

25 | Joaldunak, norena da copyrighta?

Unai Brea

10 | Corrado Masacci | Mikel Asurmendi

Ravenatik (Italia) heldu zen Bilbora. Ondarroara ezkondu eta bertan finkatu zen. Musikari eta sukaldari profesionala izan bada ere, oroz gain, txotxongilolaria da. Mugitzen eta biziarazten dituen trepeten egile eta arima.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Elizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea.

KULTURA SAILA Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza diruz lagundua		



“Jendearekin barre egin nahi dut, ez jendeaz”

Mikel Pagadizabal | Pagadi

Gaztetxeetan monologoak egiten hasi zena
Xabinaitor da orain.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Hara trafiko segurtasunaren aldeko kanpainen ideologoa!

Bizitzak salbatzeko bada ni beti prest! Hori bai, nik amona zahar batek bezala gidatzen dut, mantso-mantso, semaforo guztiei begira...

Xabinaitor izateko jaio zinela, alegia.

Ardura ikaragarria da, baina oso harro nago. Pena, eguneroko bizitzan super-botere horiek ez izatea!

Umorea ez al da super-botere bat?

Umorea oso gauza serioa da. Norekin barre egitea da kontua, ez zertaz. Aurrena errespeta, inori minik ez emateko sentiberatasuna, eta hortik aurrera dena da umore-gai.

Sinestarazi nahi diguzuna baino langileagoa ote zaren...

Nahiko langilea naiz, oso maniatikoa, eta erabat perfekzionista. Lanak loa kentzen dit. 24 orduetan ari naiz lanean. Askotan, gauez komunera jaiki, ideia bat okurritu, eta ordenagailu aurrean jartzen naiz.

Gizajoa, negarrez hastear nago.

Erotuko nintzela ere pentsatu izan dut, baina badakizu, jaiotzen garen bezalakoak gara eta... kar, kar, kar!

Zuzenbidea eta diseinu grafikoa ikasteko ez da inor jaiotzen!

Pentsa, publizitate agentzia batetik erreskattatu ninduen Alkainek, eta egun, egiten dudanak asebetetzen nauenez ez nau segurtasun

ezak beldurtzen. Hori bai, norberak bere lana sortu ezean jai dago.

Noiz arraio konturatuko zarete gipuzkera ez dela euskara batua?

Konturatu ginelako egiten dugu egiten duguna! Darabilgun euskara ulertterraza da, eta sortzekotan, azkarregi hitz egiten dugulako sortu daitezke arazoak. Baina Iparraldean eta Bizkaian ere barre egiten duten artean...

“Hemen eta orain, Pagadi euskaltzain!”

Jendeak euskarazko irain eta erreferentzia falta aipatzen du etengabe, baina niretzat euskara berezko erreminta izan da, esarak bilatu, sortu, eta jendearen pentsaera aztertzeko. Kaleko jendearengana heltzeko kaleko euskara erabili beharko da, ezta? Euskalkiek ez al zuten euskara batua aberasten?

Harrotu gabe, arrakastak lana baizik ez dakar eta.

Futbolariak bezala, aukera daukazun artean aprobetxatu eta zurea egin behar duzu. Inoiz pentsatzen dut aspertuko ote garen, aspertuko ote dugun, baina kaleko termometroa bero dagoen bitartean bota pinua!

Pagadi pinua botatzen, hori da hori anbizioa!

Jendearekin barre egin nahi dut, ez jendeaz. Hori eginez, jendea erlaxatu, entretenitu, eta inoiz edo behin kontzientziaren bat ukitzen badut, ni pozik. Horixe da nire bizitzako rola. Ez daukat bestelako anbiziorik. ■

• ASTERO GAIA •

Ortorexia

Ongi jatea obsesio

Anorexia eta bulimia dira ezagunenak. Elikadura desoreka edo nahasmendu gehiago azaleratzen ari dira, ordea, ortorexia eta bigorexia kasu, ikuspegi dietetiko-nutrizionista zein psikologikotik tratatu beharreko obsesioak. Elikagai kantitateak baino, kalitateak markatzen ditu patologia berriak.

JON TORNER

Argazkiak: Dani Blanco



Gero eta produktu osasuntsu gehiago aurki ditzakegu merkatuan. Aukeraketa egitean, gure osasunari benetan zer komeni zaion jakitea garrantzitsua da, apalategi guztietan arakatuz.



Etiket kanpo jan nahi ez izateak lagunengandik urrundu ditzake ortorexikoak. Dieta betetzeko, maiz jotzen dute denda espezializatuera (eskuineko irudian, belar-denda). Nutrizionisten hitzetan, informazio fidagarria ematea da dendarien funtzioa.

ORTOREXIAZ MINTZATZEAN, bereizketa hori egiten dute lehendabizi medikuntzako profesionalek. Anorexia eta bulimiaren kasuan, ahoratzen den elikagai kantitateak itsutzen ditu desoreka horiek pairatzen dituzten pertsonak. Ortorexikoa, aldiz, kalitateak obsesionatzen du, osasuntsu jateak. Ingortze Zubieta Euskadiko Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuaren Elkarteko (EGGEDE) lehendakariordeak azaldu digunez, “pertsona batek nahasmendu ezberdinak izan ahal ditzake: anorexiarekin hasi den gaixoak, arazoa gainditzean, ortorexia edo bulimia jasan ditzake”.

Nabarmendu nahia

Gorputzaren itxurak ez ditu ortorexikoak hainbeste kezkatzen, osasuntsu jateak baizik. Osasuna ororen gaineratik jarritzen dute eta nahasmendu patologiko baten erakusgarri diren gauzak egitera hel daitezke. Elikadura nahasmenduen atzean “nabarmendu nahia” dagoela diote psikologoek, besteengandik bereizi nahia. “Ez da erraza azaltzeko”, esan digu Bittor Rodriguez EHuko elikadura arloko irakasleak. “Bigorexiko baten kasuan bai, besteek ikus dezaten aritzen da gimnasioan jo eta su”. Bigorexia da gorputzarekin obsesionatuta egotea, gihartsu egon nahiagatik –gorputza hobeto ikusteagatik– ariketa fisiko gehiegi egin eta anabolizatzailerik eta esteroideak kontsumitzea. “Ortorexikoen kasuan ordea... Pertso-

“Kinoa bezalako zerealez egindako opiltxoak eta tofua janean egun batzuk ematen dituen pertsona, bere bizitza babesgabea laguntzen pasa duena bezain Santu senti daiteke”

STEVE BRATMAN, ORTOREXIAN ADITU

na horiek sentitzen dute beste batzuekin alderatuta egoera bat hobeto kudeatzen dutela. Zera pentsatzen dute: ‘Gainerakoek nahi dutena egin dezatela, baina nik ez diot nire gorputzari kalte egingo. Osasuna oso ongi zaintzen dut’. Ikuspuntu horretatik izango litzateke masa orokorretik bereiztea. Kasu batean, ikusgarria egiteko. Bestean, etxean geratzeko”.

Zergatik aipatu du Rodriguezek etxean geratzearena? Bada, hori delako ortorexia-ren sintoma edo ondorioetako bat. Ortorexikoak hain dira zorrotzak euren buruarekin, jatetxeetara joateari muzin egin diezaioketela, ez baitute beraien *dieta osasuntsua* asetzeko nahikoa eskaintzarik. Ez dute jaten gehigarriak produkturik, azukre eta gatz gehiegi dutenak, koipe saturatua, pestizidak eta herbizidak dituztenak, transgenikoak... Horrelako elikagaiak lortzea ez da erraza eta jatetxeetan ia ezinezkoa. Gainera, zenbaitean janaria zein ontzitan prestatzen den ere kontuan izaten dute.

Jatetxeetara bakarrik ez. Gerta liteke pertsona horiek euren senide eta lagunak gonbidatutako bazkarietara ez joatea. Jendearen begietara beraien ohiturak arraroak direla sentitzen dute, egindako hau-tua gainerako mahaikideek onartuegia ez dutela. Horrek, denborarekin, lotura sozialak etetea ekar dezake. Zirkulu biziosoa da, harreman afektiboen faltak janariagatik gehiago kezkatzen eraman baititzake.

Bestelakoak dira organismoari erasaten dioten ondorio fisikoak: desnutrizioa, anemia, bitamina eta mineral defizita, osteoporosia, infekzio arriskua eta, kasurik larrienean, ahuleziak sortutako heriotza. Oinarrizko produktu batzuk jateari uzten diote, eta sarri ez dituzte ordezkutzen nutrizio-osagarri berdinak dauzkaten elikagaiengatik. Haragirik ez jateagatik, esaterako, gorputzak beharrezko duen burdina maila asko jaitsi daiteke, barazkiek eman ditzaketen proteinak kalitate txikiagokoak direlako. Sintoma fisiologiko horiei gehitu behar zaizkie depresioa eta antsietatea moduko desoreka psikologikoak.

Zorroztasuna da pertsona ortorexikoaren ezaugarrietako bat, perfekzionismoa. Borondate indar handia duela sumatzen du, eta horrenbesteko autokontrol gaitasunik ez duten pertsonen gainera sentitzen da. Aldiz, inoiz bere elikadura ohiturak urratzen baditu, errudun sentitu eta neurriare zorrotzagoak ezarriko dizkio bere buruari. Zirkulu biziosoa berriro. Anorexia eta bulimia jasaten dutenengan ere antzeko jokaera ageri da.

Anorexia eta bulimia elikadura nahasmentu espezifiko gisa definitzen dira. Izen horiek gizartean lekutxo bat egiten hasi zirenean, komunitate zientifikoak ez zituen aintzat hartzen, baina orain elikadura jokaeraren azaldura (ingelesez *Eating Disorder*) moduan katalogatzen dituzte. Funtsean, bi baldintza bete behar dira izendapen horren jabe —ala esklabu— egiteko. Batetik, norberak duen itxura edo pisuaren nolabaiteko pertzepzio desegokia izatea, benetan dugun gorpuzkeraren bertsio desitxuratua ikusi eta sinestea, nolabait esatearren. Bestetik, hautemate faltsu horren ondorioz elikadura jokaearak aldatuak izatea, otorduak gehiegi kontrolatzera eta eguneroko bizitzan eta osasunean eragina izatera heltzeraino.

“Anorexia eta bulimiaren kasuan bai, baina ortorexia edo bigorexiaren kasuan ez dira baldintzok guztiz betetzen”, dio Rodriguezek: “Bigorexiaren kasuan gorputzaren itxura edo pisuaren pertzepzioaren azaldura gertatzen da, kulturistak adibidez ahul ikusten dira, baina euren elikadura jokaera ez dute beti aldatzen”. Aitzitik, pertsona ortorexikoek jan ohiturak aldatuak dituzte, baina ez derrigorrez euren gorputza gaizki ikusten dutelako.

Ohiturak noiz bihurtzen dira patologia?

Maiz egiten den galdera honi erantzun zehatza ematea ez da erraza. “Bere osasuna gehiegi zaintzen duen pertsona gauza arraroak egiten hastean, patologiatzat har daiteke”, esan du Rodriguezek. Eta noiz gerta-

Bratman doktorearen testa

Steve Bratman doktoreak 2000. urtean plazaratu zuen *Health Food Junkies* (Janari osasuntsuaren yonkiak) liburuak egin zuen ezagun ortorexia terminoa, greziar jatorriko *orthos* (zuzena, egokia) eta *orexis* (apetitua) hitzen baturatik sortua. Hamar galderako testa proposatu zuen, arazoaren larritasun maila neurtzeko. Honatx horietako batzuk:

- Egunean hiru ordu baino gehiago ematen al dituzu dietan pentsatzen?
- Jatorduak (menua) aurrerapen handiarekin planifikatzen al dituzu?
- Dietaren kalitatea hobetu den heinean, zure bizitza kalitatea murriztu al da?
- Gustuko zenituen elikagaiei muzin egin al diezu, gauza “onak” jateko?
- Dieta oztopo al da etxetik kanpo jateko? Familia eta lagunengandik urrundu zaitu?
- Dieta errespetatzen ez duzun egunean, errudun sentitzen zara?

tzen da hori? EHUKo irakasleak azaldu digunez, bigorexia dutenen kasuan zein produktu kontsumitzen duten ikusita eta osasun arazoak izatera heltzen direnean suma daiteke zerbait gertatzen dela. Rodriguez atletismoan aritu da eta bi egunez behin gimnasia doa. “Ikusi izan ditut bigorexia kasuak”, diosku. Anabolizatzaileak hartuta, gorputz masa handitzen dela ikusten dute kirolariak. Emaitzak agerikoak dira denbora gutxian, ez, ordea, sor daitezkeen osasun arazoak. Horiek beranduago agertzen direnez, “benetako astakeriak” egitera hel daitezke: “Lehiaketetara aurkezteko eta giharrak gehiago markatzeko gorputza deshidratatzen dute. Egarri handia izan ohi dute eta engainatzeko, baina urik ez atxikitzeke, destilatutako ura edaten dute”. Batzuetan, ahoa busti bai baina ez dute ura xurgatzen.

Ortorexiaren kasuan zailagoa da arazoa ikustea. Dietistek duela hiruzpalau urte egindako galdetegia erabiltzen dute, Steve Bratman doktore estatubatuarrek plazaratutakoa —ikus koadroa— oinarri duena. Pazienteak ez ditu galderak ezagutzen; hari galdera nahiko zabalak egiten dizkio medikuak, eta jasotako erantzunetatik abiatuta beteko du



"Dietistoi gertatu izan zaigu enpresa batek kontsultan produktu bat saltzeko eskatzea. Ezetz diogu. Dieta osasuntsua jarraitzeko ez da beharrezkoa produktu berezirik kontsumitzea"

BITTOR RODRIGUEZ, NUTRIZIONISTA

galdetegia hark. Galdera bakoitzari puntuazio bat eman ostean jakingo du kasua larria den ala ez, paziente bakoitzari zein aholku eman behar zaizkion, zer-nolako dieta komeni zaion. "Norberaren sexu, pisu, lanbide eta abarren arabera izango da ezarriko diogun dieta", azaldu du Zubietak. Funtsean, elikadura ohituren inguruko galderak egiten zaizkie pazienteei: elikaduraren gainean pentsatzen zenbat denbora ematen duen, gauzak gaizki egitean nola sentitzen den, zein janari gustuko duen eta zein ez, tratamendu farmakologikorik eramaten al duen...

Oro har, elikadura nahasmenduak pairatzen dituzten pertsonak "oso azkarrak" dira, eta horregatik ez zaie galdetegia erakusten. "Galderak ezagutzen badituzte... gezurra esango dute", dio Rodriguezek. "Erremintak izan behar dituzu gezur horiek deskubritzeko. Badakite beste alternatiba batzuk proposatzen dituzten profesionalak daudela, baina berdin zaie, egiaren jabe direla uste dutelako. Lagundu ahal izateko, ezinbestekoa da pazienteek arazoaren kontzientzia izatea. Obesitate kasuetan hori lortzea ez da erraza; ortorexia modukoetan are zailagoa".



"Pazienteen nahasmenduak obsesio bihurtzean, psikologo, psikiatra eta medikuekin jartzen gara harremanetan. Tratamendu multidiziplinarra da eraginkorrena"

INGORTZE ZUBIETA, NUTRIZIONISTA

Osasuna kontrolpean

Rodriguezek hitzetan, elikadura osasuntsua zer den argi erakutsi behar da, gomendioak nork ematen dituen, nork eman beharko lituzkeen: "Pazienteek uste dute zuzen ari direla, zer jan behar den badakitela, soilik aldizkari batean edota Interneten irakurri dutelako. Nik kirurgia artikulua irakurri ditzaket, baina ez dut nire gorputza zabaldu eta operaziorik egiten". Bere iritziz, joera arriskutsu bat ari da hedatzen gaurko gizartean: "Osasunaren kontrola norberaren esku dagoela esaten digute, eta merkatuak aukera zabala eskaintzen digu behar duguna lortzeko. Zientzialariak ez daude hortik kanpo. Elikagai funtzionalak eta ikertzen ditugu, argaltzeko balio ote duen deskubritu eta produktu batean sartzeko. Telebistan entzuten badugu produktu hori hartuta gehiago argalduko garela, supermerkatuara joango gara haren bila. Tratamendua profesionalen esku utzi beharrean, pertsonaren esku uzten dugu".

Horrek ez du esan nahi zer jan eta zer ez kontrolatu behar ez dugunik, ezta gutxiago ere. Rodriguezek hitzetan, elikadura osasuntsuak onura asko ditu, ez bakarrik norbera-

Elikadura nahasmendu "berriak"

Ortorexia eta bigorexiarekin batera, nahasmendu gehiago agertu dira. Oraindik profesionalen artean ezadostasuna dago patologiatzat definitu behar diren ala ez erabakitzean, baina apurka-apurka kasuak areagotzen ari dira. Hauek dira batzuk:

Permarexia: Beti dieta egiten ari denaren obsesioa. Eta dietari buruzko informazio mordoak irakurtzen duena, aldizkarietan, Interneten.

Pregorexia: Haurdun dauden emakumeek anorexia urduria dutenean. Umea izateak dakarren pisu hazkunde normalak sortzen duen ezinegona da arrazoia. Behar baino kaloria gutxiago kontsumitzen dira, eta behar baino kirol gehiago egin.

Drunkorexia: Gazteek zurrutari ematen diote, eta edanak ematen duen kaloria kopurua orekatzeko, jateari uzten diote. Edo edanari ematen diote jateari utzi nahi diotelako.

Manorexia: Gizonezkoek izan ohi duten anorexia urduria.

Diabulimia: Diabetea duten pertsonak, euren gaitzak elikadura arloan eskatzen dien zorrotzasuna baliatuz, ahalik eta gehien argaltzen saiatzen dira. Intsulina dosiak propio gutxitzen dira, eta hori arazo larri bihur daiteke.

Betekada-nahasmendua (Binge-eating): euren dieta asko kontrolatzen duen jende batek noizean behin sekulako betekadak hartzen ditu, modu konpulsiboan.

Gaueko jatunaren sindromea: Egunaren lehen partean gutxi eta afal orduan asko jatea, baita gauean zehar ere. Bulimia edo betekada-nahasmenduaren kasuetan ez bezala, ez da janari kopuru handirik jaten kolpean, mokadutxo txikiak baizik, gau osoan behin eta berriro.

Geumatofobia: Zapore ezezagunen beldur izatea.

rentzat. Elikadura osasuntsua da barazkiak eta frutak jatea, eta ahal bada merkatuetan erostea, bertako baserritarrei, denda ekologikoetan... Norberaren gorputza soilik aintzat hartzea baino, ikuspegi zabalagoa izatea komeni dela uste du: "Galdetu produktuak zugana nondik eta nola heldu diren, nork produzitu dituen, horien atzean zein enpresa dauden, zer ezaugarri dituzten... Pentsatu zer jaten ari zaren. Kontziente bagara, gauza ugari bultza ditzakegu elikaduraren bitartez".

EHUko irakasleak argi du arazo batzuk baserriko produktuak kontsumituta konpon daitezkeela. "Noski, badira eraginkorrak diren elikagai funtzionalak. Nire ustez, ongi ez dagoena da hain eskuragarri jartzea". Zenbait elikagaiek duten fitosterola jarri du adibide moduan, kolesterola murrizten duen konposatua: "Zuzenean halakorik esaten ez diguten arren, nutrizionistaren kontsultara joan baino lehen kolesterola zure kabuz kontrolatzen saiatzeko aukera ematen dizute. 'Nahi beste kolesterol jan dezakezu, ondoren izango baituzu murrizteko aukera'. Ba ez jan hainbeste kolesterol! Batzuei lagun diezaieke, baina ez denei. Jendea argi utzi behar zaio helburua ez dela kolesterola gutxitzea, kolesterol altuaren arrazoiak saihestea baizik. Jendeak ikusten badu funtzionatzen duela, ez du dieta aldatuko eta gaizki jaten jarraituko du, kolesterol altuko elikagaien ostean hura kontrolatzen duen produktua hartuz".

Gure gorputza eta osasuna zaintzea bogan dagoela esan digu Ingortze Zubietak:

"Halaber, gero eta elikagai funtzional gehiago aurki ditzakegu merkatuan. Orain arte hain ezagunak ez ziren hitzak egunerokoak egin dira: Omega-3, bifidoak... Horiek dira osasuna zaindu nahi duten pertsonak gehien hartzen dituztenak, baita denda espezializatuetan erositako produktu ekologiko edo biologikoak ere". Elikagai horiek garestiagoak izan ohi dira, poltsikoarentzat bederen. Horratx ortorexiaren beste ezaugarri bat, zuzenean kalitatearekin lotuta dagoena: dietaren prezioa.

Oraingoz pertsona gutxi dira dieta garestiegi ordaindu dutenak. Zubietak eman dizkigun datuen arabera, profesionalen kontsultara doazen %0,5-1 baino ez da ortorexikoa. Dena den, kopuruak gorantz egingo duela uste du. Funtsezkoa da ongi jatea, obsesio bihurtzen ez den bitartean. ■



«Mintzoa erabili gabe antzekoak gara denok»

Mundua darama herriz herri, erakusketatik erakusketara. Txotxongiloek mundua agertzen dute eta berak txotxongiloak. Hizkuntza anitz dago munduan, bere munduan bakarra. Haurrak mundua dira eta bere mundua haurrena.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

1981ean heldu zinen Euskal Herrira, Ravenatik. Gogoan al duzu lehen egun hura?

Bai, bai... Bilbora iritsi nintzen, azaroa zen, ostirala, ilunabarra. Alde Zaharrean sartzean txunditurik geratu nintzen kaleko giroarekin, gauza harrigarria izan zen niretzat. Orduko kolore grisaz gomutatzen naiz, industriaguneen eta errekaen koloreez, jendea batetik bestera arin zihoala... Gerora konturatuko nintzen, jendea arratsaldeko seietan hasten zen “munduratzen”. Geroago, otsail aldean, azaroan ezagutzen nuen kolore grisak kontrastean Ihauteriko koloreek liluratu ninduten. Ravena hiri patxadatsuan –egun ia 140.000 bizilagun ditu– bizitzen ohituta nengoen, ez zen txikia ere, baina Bilbo besterik zen.

Zer dela-eta etorri zinen?

Bira musikal baten karietara. Italian ezagutu berria nuen lagun antzerkilari batekin etorri nintzen –antzerkian ari zen lagun argentinar bat zuen Bilbon–. Laguna musika talde batean ari zen eta berarekin jotzera gonbidatu ninduen. Trio bat ginen. Nik perkusioa jotzen nuen. Lehen agerraldiak Bilboko ezker aldean egin genituen. Bilbon ere jo genuen, Kaskagorri eta Kafe Iruñean. 1979az geroztik, musikari profesional ari nintzen jada. Formatu txikiko ekitaldi koskorrak ziren gureak, baina hartaz bizi ginen.

Ravena nolakoa zen orduan? Familia han utzi eta hemen gelditu zinen.

Ravena hotza eta grisa da, Adriatikotik gertu dago, Bilbo itsasotik nola halatsu ere Ravena. Udan koloretsua da, baina neguan jendea kaleetatik desagertzen da. Ravenak ezaugarri bi ditu: industria eta turistikoa da. Neguaren eta udaren kontrastea izugarria da.


Bizantziar eta paleokristau jatorriko monumentuengatik oso da ezaguna, mosaikoen-gatik bisitatu. Artearen puntako hiria da harrigintzan. Arte bizantziarreko munduko mosaiko onenak Ravenan daude, Estambulgoekin batera. Hori guztia barneratu nuen txikitatik, artearen munduak zoraturik hazi nintzen. Aita langile arrunta izanda ere, marraztea hagitx gustatzen zitzaion. Oinarritzko hezkuntza egin ostean, Arte Ederretako Institutuan ikasi nuen, benetako artistak ziren maisuekin ikasteko zoria izan nuen: Mauro Bartolotti eskultorearekin eta Francesco Verlicchi pintorearekin. Biek ala biek sakon markatu ninduten.

Musikaria zinela esan duzu, ordea.

Musika gaztetako nire lehen pasioa izan zen, aldi labur batez ogibidea izan nuen eta pasioa izaten segitzen du. II. Mundu Gerra ondoren gurean ere musika angloamerikarra indartsu sartu zen, 1968 aldean bereziki. Orduko musika eta taldeak imitatzen genituen guk ere, Jimmy Hendrix edota Deep Purplen piezak jotzen genituen, nik bateria. Geroago, perkusiora pasa nintzen, musikaren bestelako eritmoetan murgildu ostean.

Nortasun agiria

1959an jaio zen Ravenan (Italia). Emilia-Romagna eskualdean dago Ravena, iparraldean, Adriatikoko itsasotik gertu. Ravenako Arte Ederrak Institutuan ikasi zuen. Mosaikogintzan maisu diplomatua da. 1979an hasi zen txotxongiloen munduan. 1981ean iritsi zen Bilbora. Ondarroara ezkondu zen gero, Lidia ondarrutarrarekin. Alaba bat dute, Amaia. Musika da. Bateria eta perkusioa jotzen ditu. 1.000 binilo baino gehiago ditu etxean, zinta-kaseteak eta CDak bestalde. 100 txotxongiloen egilea da. Igelen erakusketa estreinatuko du martxo aldean Gernikan.



• PERSONAIA •
Corrado Masacci



Musikaria lehenik, txontxongilolaria beranduago, eta sukaldaria ere izan zara...

Sukaldaritza nire bizitzaren parte inportantea da. Lauzpabost urterekin nik neuk mugitzen nuen bitsadera amaren lapikoetan. Nire aitak pastak apailatzen zituen bitartean amaren krema suerte guztiak nahasten nituen. Igandea egun handia zen gure etxean.

Baina sukaldari profesioanala bihurtze hori?

Bilboko Iturribide kalean bizi ginen eta *bote-llón* fenomenoaren hasiera ezagutu genuen. Bilbo zeharo aldatzen hasi zen eta Ondarroara alde egin genuen. Lidiaren [andrea] osaba arrantzaleak hemengo sukaldaritzaz dezente erakutsia zidan ordurako, arrainak atontzen bereziki. Artean Leioako Ostalaritza eskolan ere ikasi nuen. Txotxongiloak ez zidan erabateko ziurtasunik ematen eta sukaldaritzak tentatu ninduen. Alabaren ondoan denbora gehiago igaro nahi nuen eta sukaldaritzara –libreago biziko nuen ustetan– aldatu nintzen proba gisa. Sukaldaritza polita bezain esklaboa dela konturatu nintzen, ordea. Herbeheretako Casa de

“Euskal Herriko pertsonaia mitikoek erakartzen naute. Baina mitoei buruzko gaia oso landuta dago euskal txotxongiloen konpainietan. Gaia kontu handiz landu behar da. Mito bat errepresentatzea ez da samurra. Zerbait egiteko, nire burua ikasia eta ziur sentitu behar dut, guztiz konbentzitua”. Ezkerreko irudian, harri-jasotzailearekin.

España delakotik txotxongilo bira bat egiteko gonbidapena baliatu nuen nire mundura itzultzeko.

Zer dira txotxongiloak zuretzat?

Adierazpideak dira, komunikatzeko nire trepetak, besteen bizitza alaitzeko bitartekoak. Bistan da, besteak alai ikusteak zu alaitzen zaitu ezinbestean. Txotxongiloaren mundua beste kulturak ezagutzeko egokiera da. Txotxongilorik gabe ez nintzen iritsiko beste pertsonengana, beste kulturetara...

Sortez jasotzen den zerbait al da?

Sortez... Haurra nintzela, nire jaiotetxeak patio txiki bat zeukan, balkoiekin, patioak teatro itxurako espazio txikia hartzen zuen niretzat. Eszenatoki hartan, erdi-erdian, bizilagunen begietara aritzen nintzen kontu kontari, imintzioka. Ama azaltzen zen eta “Corrado utziozu pailazoarena egiteari” esan ohi zidan. Ez nuen atentzioa deitzeko gurarik, ez zait exihibitzea gustatu inoiz, baina dibertitzeko irrika nuen, olgetan aritzeko nahia, besteak entretenitzeko gogo bizia. Pertsona herabea naiz txikitatik, trakets eta baldar samarra gainera, ez dut ikasi dantzan taxuz egiten eta musikaria naiz... Txotxongiloari esker naiz, hein handi batean, naizena.

Zer bide egin zenuen mundu horretara iristeko?

Arte Ederrak amaitu ostean, udaldietan, kolonietan hasi nintzen haurrekin lanean. Behinola txotxongilo emanaldi bat ikusi... eta flash bat izan zen niretzat, agerkunde bat: hura zen bilatzen ari nintzena. Txotxongiloa oso lotuta dago gure kulturari, komediaren arteari. Institututik atera nintzenean, bane-kien pintatzen baina zerbait falta nuen, bane-kien ere eskulturan jarduteko oinarritzkoena, baina ez nintzen erabat ziur. Txotxongiloak aurkitzean “hara, marionetaren inguruan dena biltzen da, eskultura eta pintura, musika eta dantza” esan nion nire buruari. Komunikatzeko nire bidea aurkitu nuen.

Txotxongilolaria izateaz gain, zeure txotxongiloak egiten dituzu.

Kolonietan monitore lana eman zidana Italiako pertsona aditua eta zinez trebea zen txotxongiloen artean. Irakaslea eta Italiako Marioneten Jaialdi inportanteenetako ardu-

"Gustavo igela erreferente izan da nire bizitzan. Gustavo erreportaria, Barrio Sesamoko pertsonaia. Nire lehen txotxongiloa igel bat izan zen. Uneon, igelen munduan sartu naiz bete-betean".

raduna zen. Jaialdian marionetista onenak ezagutu nituen. Irakasle hark txotxongiloei buruzko biblioteka onena zeukan, nahikari izugarria piztu zidan, berak bultzatu ninduen mundu honetan lehen urratsak ematera. Marionetak egiteko eta lehen ikuskizuna prestatzeko dirua berak eman zidan. Zorte handia izan nuen.

Txotxogilo agerraldiak egitetik erakusketak egitera pasa zinen.

1990etik erakusketak prestatzen eta egiten ditut. Arestian aipatu dudan geldialdi haren ostean, lan egiteko modua eta ingurunea aldatzea erabaki nuen: "Erakustaldiak egingo ditut...". Ez nuen uste jarduera modu honek horrenbeste iraungo zuenik. Diferentzia handia dago agerraldien eta erakusketen artean. Haurrak ondo-ondoan ditut erakusketetan, gutxiago dira kopuruz, uneak bizi-biziak dira eta harremanak hurbilagoak. Erakusketekin segitzea laketgarriago zait.

Zein izan dira zure erakusketak?

Txotxongiloaren Artea deritzan ikuskizuna izan zen lehena. Arte hau ezagutarazteko abiapuntua landu nuen. Txotxongiloaren Mundua eta Zirkoa eta Txotxongiloak ikuskizunak garatu eta tartekatu ditut gero. Zirkoak berebiziko eragina izan du marioneten munduan, erakusketa klasikoa da. Marionetek zirkoko pertsonaiengan izan duten eragina erreprezentatzen dut, baita euren agertzeko modua ere. Txotxongiloaren Mundua delakoan munduko kulturak agertzen dira, baita marioneten kulturak ere. Pertsonaia batzuk nik asmatuak dira, beste batzuk munduan jasoak. Kulturen erakustaldia da, kulturen arteko gurutzaketa, historiako kulturen nahasketa. Kultur denek ekarri diote zerbait ondokoari, herrialde batek besteari. Pertsonaiek izen ezberdinak dituzte, baina beren bizipenen jatorria eta oinarria, egin eta konta dezaketena, antzekoak dira. Munduaren aniztasuna eta ezberdintasuna ageri da beren bidez, eta aldi berean parekotasuna edota berdintasuna. Txotxongiloek munduaren bateratasuna aldarrikatzen dute, eta hau mintzoa erabili gabe gauzatzen da. Mintzatu gabe denok nahiko antzekoak gara. Munduko kulturen marioneten keinuak, imintzioak, mimikak eta mugimenduak antzekoak dira, gu ere halakoak gara, diferenteak eta berdinak aldi berean.

"Txotxongiloak aurkitzean 'hara, marionetaren inguruan dena biltzen da, eskultura eta pintura, musika eta dantza' esan nuen. Komunikatzeko nire bitartekoa aurkitu nuen"



Zertan diharduzu orain?

Igelen metamorfosia lantzen ari naiz, igelen inguruko erakusketa tematikoa prestatzen dihardut. Zirkoa eta Txotxongiloak ikuskizuna gauzatzeko haurrek lagundu zidaten pertsonaiak marrazten, marioneten zirriborroetarako ideiak eman zizkidaten. Munduko Txotxongiloak garatzeko Kukubiltxok Mundumira ikuskizunean parte hartzera gonbidatu ninduen, eta hartara, kulturen arteko erakusketa lantzen egi nintzen. Honekin ere antzean, haurrek hasi nintzen berezia dute igelkiko. Munduaren historia aztertzen badugu ohartzen gara igelek zirrarar eragin dutela pertsonengan, gizakiok modu bereziz begiratzen diegu igelei. Igela bizi-bizia da, izakari apartekoa, bizitasunaren sinboloa. Egun, zoritxarrez, kutsaduraren eraginez desagertzen ari dira.

Igelak... Bitxia da.

Bitxia baina ez hain arraroa... Gustavo igela erreferente izan da nire bizitzan. AEBetako *Kermit the Frog*



AZKEN HITZA

Indiako tximinoak

"Etxean lo nengoen eta tximino aldra bat sartu zen nire logelara, inguratuta esnatu nintzen. Denbora luzea eman nuen haiekin bizitzen, asko ikasi nuen haiengandik". 1981ean egon zen Indian, tokiko musikaren eta txotxongiloen mundua ezagutzeko eta esperimintatzeko. Ordurako txotxongilo agerraldiak egiten zituen. Indian mundu erabat ezberdina, harrigarria eta gogorra ezagutu zuen. Keralako landako jendartearen ezagutzea zirraragarria egin zitzaion. Orduan sortu zuen egun daukan txotxongilo tximino taldea, horietako bat oso ezaguna da haurren artean, txotxongilo bizi-bizia. Indiako hegoaldeko tribu batekoek Vasco de Gama deitzen zioten Corrado Masacci-ri, ordurarte bakan ikusten baitzuten atzeritarrik. Tximino taldea bigarren ikuskizunean (Zirkoa eta Txotxongiloak) sartu zuen, Rajastaneko txotxongiloak bezala ezagutuak.

delakoa, European Gustavo erreportaria, *Barrio Sesamoko* pertsonaia. Nire lehen txotxongiloa igel bat izan zen. Uneon, igelen munduan sartu naiz bete-betean. Dena den, erakusketa prestatzean ez naiz hutsetik abiatzen, hainbat kulturetako pertsonaiekin batera osatzen dut berau, pertsonaien istorioen sakoan sartzen naiz. Igelena teknikoki aparteko sorkuntza da, beste urrats bat nire bidean.

Romagna eskualdekua zara, Federico Fellini zinegilea ere bertako zen. Behinola "Txotxongiloen munduak, nireak bezala, Felliniren surrealismoa barnebiltzen du" irakurri nuen hemengo egunkari batean.

Felliniren zinema gustatzen zait. Nire mundua baina, fantastikoa da. Kazetariak ez dagoena bilatzen dute maiz, inpaktua lortu nahi dute. Nigan ez dagoena agertu dute batzuetan. Kasu horretan nik esana desitxuratu zuten.

Silvio Berlusconi ere galdetuko dizute sarri, topikoa, ni orain egiten ari naizena...

Italiako politika interesatzen zait edo... zitzaidan. Italian gertatzen dena hain da azaldu ezina. Nik ere topiko batez erantzutuko dizut: Berlusconi kritikatu da, baina horrenbeste boto jasotzen badu, askok berak errepresentatzen duena izan nahi dutelako izango da, ezta?

Zer da Italia zuretzat hitz laburretan?

Mosaiko bat. Italia hemendik begiratuta, italiar guztiak berdina. Ipar eta hegoaren

Romagnako interpretaria

"Tematsu samarra naiz, romagnoloek horren ospea ei dugu. Herabea naiz ere, baina adiskideak erraz egiten ditut. Jolasa atsegin dut, baina txotxongiloen jarduera ez da jokoa, nire bizitzaren parte da, lanbidea. Txotxongiloak mugitzea, musika instrumentu bat jotzea bezala da. Noski, ez da nahikoa nota jotzea, interpretatzen jakin behar da".

artean dagoen aldea hemen baino askoz handiagoa da ordea, eta hau ez da topikoa egitea baizik. Diferentziak hemen baino askoz markatuagoak dira, diru eta klase diferentziek oso markatuta. Hemengoarekin alderaturik bizimodua diferentea da oso.

Zure txotxongiloak Helena Tabernaren *Yoyes* filman agertzen dira.

Bi eszenatan. Helena Tabernak ikuskizun batean ezagutu ninduen, handik gutxira *Yoyes* filmaren proiektua erakusteko deitu zidan. Filmari zegokion eskaintza estetiko bat proposatu nion. *Yoyes*ek amets gaiztoa du, horietan agertzen dira nire txotxongiloak. Zaldi baten jazarpena dago tartean.

Kanpotik heldu zinen, hemen finkatu eta errota zara. Nola bizi duzu euskal gatazka deitzen duguna?

Nik bakea nahi dut, denontzako bakea. Hau esatea ere topikoa da. Halere, badago ageriko kontu bat: hemen oso ongi bizi gara. Agian ez gara kontziente, bakean biziz gero, gizarte honek eman lezakeenaz. Gatazkak guk uste baino askoz gehiago markatzen gaitu. Hori diot –hemengo baten modura bizi naizela, kanpoko ezagutza dudala– beste kulturen esperientziatik begiratuta. Ravenara joan ohi naiz denboraldi batez urtero, kanpoan nagoean faltan hartzen dut hemen dudana, handia da, balore handiak daude Euskal Herrian. Galdu daitezkeela sentitzea oso da etsigarria. ■

Bolibarra-barra

2003tik aurtengo urtarrilaren 11 arte, kanbio kontrola izan da indarrean Venezuelen. Legez, dolar bakoitzeko 2,15 bolibarreko kanbio tasa finkatu zen eta, ordutik, ez da tasa hori mugitu.

CADIVI erakunde publikoa arduratu da urteotan dolarrak eta bolibarrak salerosteaz, nazioarteko merkataritza zailduz eta kontrolatuz: dibisak trukatu bai baina, dolarrak saltzerakoan, ez du modu azkar eta errazean egin; burokrazia hagitz eta ustelkeria ez gutti.

JOSEBA BARANDIARAN

VENEZUELAN negozioak dituzten Telefonica eta BBVA adibidez, dibidenduak etxeratu ezinik dabilta hilabete luzez; inportazioen kontrol politikoa egin ahal izan du CADIVI eta, Venezuelako herritar arruntek ere, mugatuta izan dute atzerrira eraman —edota bertan gastatu— zezaketen diru kopurua —Interneten barne—. Herrialdean legez zeuden dolar guztiak gobernuari saldu beharrekoak ziren.

Lege horrek merkatu beltza sustatu du noski, venezuelarrek txanpon ziurtzat —eros ahalmena babesteko gai dena— jotzen dutelako dolarra, bolibarra ez bezala. Euren arteko kanbio tasa 2,15ean finkatu arren, AEBetako inflazioa baino askoz altuagoa du Venezuelak; %30etik gertukoa azken urteetan. Beraz, ez dago bolibarretan aurrezteko pizgaririk, bolibarrak ez baitu familia eta enpresen eros ahalmena bermatzen: gastu publiko handiko, lehiakortasun gutxiko, interes tasa baxuko —gobernuaren kontrolpean hauek ere— eta, finean, inflazio handiko ekonomia da Venezuela; txanpon ahula bolibarra.

Baina bolibarra ezin zen depreziatu, legez finkatua zuelako prezioa. 2,15az bestelako kanbio tasarik bazenik ere aipatzea delitua zen oraintsu arte. Baina dolar paraleloa edo permuta deitu izan den horren prezioa Interneteko toki batzuetan ikusgai bazegoen eta Chavezek berak aipatu zuen debaluazioa iragartzean.

Horrek guztiak urtetako tradizioa sendotu baino ez du egin: venezuelar dirudun apurrek euren ondarea herrialdetik at mantendu eta gastatzeko joera, izan Karibeko paradisuetan, izan AEBetan. Banco Central de Venezuela aldiz, ez da independentea, gobernuaren menpeko erakundea baizik. Ondorioz, gastu publikoa, zorra eta erreserbak nahierara baliatu ditu Chavezen Gobernuak, iraultza bolibariarraren mesedetan.

Kanbio kontrola ezartzean, helburua kanbio tasaren gorabeherak amaitzea eta, une batez, inflazioa kontrolatzea ziren. Une batez



Venezuelarrek dolarra dute txanpon ziurtzat, ez bolibarra (goiko irudian). Inflazio handiko ekonomia da Venezuelakoa; txanpon ahula bolibarra.

lortu zuen. Venezuelak petrolio eta gas esportazio garrantzitsuak ditu (esportazio guztien %94) eta gainerako gehienak inportatu egiten ditu; horrek dolar iturri oparoa jartzen du gobernuaren esku eta herrialdeko ekonomia zuzen-zuzen lotzen du petrolioaren prezioarekin: petrolioaren garesti dagoenean —2007 hasieran, esaterako, upela ehun dolarrez gora zen—, eros ahalmen handia du Venezuelako Gobernuak. Gure kontrara, petrolioaren merkatzean larritzen dira.

Petro-dolarren erreserbak gastatzeko betiereko tentazioaz gain, esaneko banku zentralaz harago, hauteskunde urtea den honetan arazo argia zuen Chavezek: gastua handitu beharra. Eta, legez, dolarreko 2,15 bolibar baino inprimatu ezina. Hartara, ideia aparta izan du: debaluazio bikoitza. Petrolio esportaziotik datozen dolarrentzat —eta gobernuak erabakitako zenbait eragiketetarako, atzerriko bidaietarako adibidez— 4,30 bolibarreko kanbio tasa agindu du (%100eko debaluazioa). Hartara, petrolio kopuru bera esportatuz, lehengo bolibarrak halako bi ditu gobernuak bere esku, gastu publikoa sustatuz aurtengo hauteskundeak prestatzeko. Eta gaitz nontzeko truke gehienetarako, 2,6ko kanbio tasa finkatu du (%21eko debaluazioa).

Urtarrileko debaluazio bikoitzak permuta edo dolar paraleloa 6,2 bolibar ingurura mugitu zuen eta herrialdean oraindik amaitu ez den nahasmena eragin: nork, zer eta zertarako erosten duen arabera, alde itzela baitago dolarren kanbio tasan. Bultzada itzela ustelkeria eta legez kanpoko merkatuari.

Debaluazioarekin, bolibarrak dituztenek lehengo dolar erdiak erosi ditzakete; pobretu egin dira venezuelarrak. Bestalde, ezegonkortasuna handitu egingo da eta debaluazio gehigarrien usteak xaxatu, petrolioaren garestitzen ez bada bederen. Trukean, Chavezen Gobernuak bolibarrak barra-barra izango ditu urte amaiera bitarte bozka zakua gizentzeko. ■

• A gripearen kudeaketa •

Ikararen txertoa aztergai

Europako Kontseiluak ikertu egingo du Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) A gripeaz egin duen kudeaketa: batetik, gaitzaren larritasuna neurritz kanpo baloratu ote duen eta bestetik, industria farmazeutikoarentzat onuragarri izan den txerto salmenta masiboa sustatu al duen. Errepasoa egin diegu OMEk eta prentsak iaz zabaldu zituzten mezuei.

MIKEL GARCIA

A/H1N1 BIRUSAREN eragina dagoeneko beheraka doan honetan, eta dakigunean gaixo eta hildakoen kopurua ez dela izan inondik inora aurreikusi bezain ankerra, erabili gabeko txerto andana itzuli behar izan dituztela gobernuek, kritikak dira nagusi: gehiegizkoa izan al zen birusaren inguruan OMEk iaz piztu zuen alarma, hedabideek ondoren lau haizetara zabaldu zutena?

Gripearen kronologiak, kazetaritzaren ikuspegitik, 2009ko apirila bukaeran du abiapuntua. Notizia azalean agertu zen egunero, etenik gabe, apirilaren 25etik (*Gara*, *Diario de Noticias*) edo apirilaren 26tik (*Berria*, *El Diario Vasco*) maiatzaren 3ra arte (*Berria*, *Diario de Noticias*), maiatzaren 5era arte (*Gara*) edo maiatzaren 6ra arte (*El Diario Vasco*). Barruan, orri batetik bestera bitarteko lekua hartu zuen gripeak egunkari horietan, eta goiburuek honela astindu zuten gaia lehen egunetan: “Birusa azkar hedatzen dela eta ezingo dela gelditu ohartara-

zi dute AEBek” (*Berria*, apirilak 26); “Birusak Mexikoko mugak igaro ditu eta dozena bat herrialdetara hedatu da” (*Gara*, apirilak 27); “Txerri gripearen Europako lehenengo hiru kasuak baieztatu dituzte” (*Diario de Noticias*, apirilak 28); “Psikosia Mexikon erabatekoa da” (*El Diario Vasco*, apirilak 30).

Egoeraren larritasun mezua, baina, OMEk berak zabaldu zuen hasieratik, iturri nagusia erakunde horixe izan baitzuen prentsak: “OMEk ‘larri eta inprebisibletzat’ jo du egoera eta pandemia eman daitekeela dio” (*El Diario Vasco*, apirilak 26); “Pandemia arriskua dela eta, OMEk erne egoteko eskatu du” (*Berria*, apirilak 29); “OMEk 5. mailara igo du alerta, berehalako pandemia arriskua dela-eta” (*Diario de Noticias*, apirilak 30). Hona zer esan zion Margaret Chan OMEko zuzendari nagusiak *El País* egunkari espainiarrari: “Gripearen birusak iruzurtiak dira, ezin gara fidatu” (maiatzak 4).



Gainera, erakunde publikoen ahotik aurreikuspen apokaliptikoak jaso ditugu —oraingoz bete ez direnak—: “Europaren erdia kutsa daitekeela ohartarazi du EBk” (*Berria*, maiatzak 1); “OMEk aurreikusten du gizateriaren herena A gripeaz kutsatuta egon daitekeela 2010ean” (*Diario de Noticias*, maiatzak 8).

Egunkariak galdekatutako adituek ere ez zuten gehiegi lagundu, iragarpen nahasgarriak eskaini baitzituzten. *Garako* elkarrizketatuak zioen denbora pasa ahala birusa kutsakorrago bihurtuko zela, “baina ez gogorragoa” (maiatzak 5). Aldiz, *El Diario Vasco*ko adituak ilunago ikusten zuen etorkizuna: “Gripe pandemia kontrolatzea oso zaila da, denetik gerta daiteke. Atzo lau baino ez ziren, bihar 20 izan daitezke...” (maiatzak 1); edota hona al baitari batek berripaper horretan esandakoa, maiatzaren 5ean: “Udazkeneko gripearen bigarren olatua larriagoa izan daiteke”. Nazioarteko prentsan ere antzeko adibideak aurki ditzakegu: *Le Monde* frantsesak epidemiologo baten hitzekin titulatu zuen maiatzaren 12an: “A gripearen epidemiak 30.000 pertsona hil ditzake Frantzian”. Espainian, *El País*ek jazo zitezkeen hiru egoerarik okerrenak bildu eta balizko kutsatu, hildako eta hondamendien berri eman zuen “Eta dena gaizki irteten bada?” artikuluan (maiatzak 3).

Barruko orrietan —baita zenbait egunkarietako azaletan ere—, interes informatiboa tarteka mantendu zuen gaiak, OMEk etengabe ematen zituen gaixo eta hildakoen kopuruak ekarri edota kutsatuta egon zitezkeen euskaldunen kasu bakoitza argitaratuz. Informatiboki ekainaren 12an bueltatu zen indartsu egunkarietako azaletara, OMEk gripea pandemia izendatu zuela ohartaraziz. Eta hortik aurrera, txertoak hartu zuen garrantzia: industria farmazeutikoak laster prest izango zuela, lekuan lekuko gobernuek zenbat erosiko zituzten...

Informazioak, haatik, beste bide bat hartua zuen jada egunkari batzuetan, airatutaria pandemia larriak hain izugarria ez ziriela eta farmazeutikek negozio itzela egingo zutela azpimarratuz. “Gripe arruntak urtero 4.000 pertsona hiltzen ditu Estatuan” (*Diario de Noticias*, maiatzak 5); “Gripea, zein gripe?” (*Gara*, maiatzak 16); “Negozioaren pandemia” (*Berria*, ekainak 13).

Eta datuek horixe berretsi dute; OMEk 2009ko abenduaren 30eko buletinean eskainitako informazioaren arabera, A/H1N1 gripeak ordura arte mundu osoan eragindako hildakoak 12.220 izan ziren, eta zifra baxua da, gripe arruntarengatik 250.000 eta 500.000 pertsona artean hiltzen baitira urtero. Ondorioa? Aipaturiko Europako Kon-

Alerta mailaren kronologia

3. maila

2009ko apirilaren 11n, txerri gripeak lehenengo hildakoa utzi zuen Mexikon, neskato bat. Apirilaren 24an Mexikoko Gobernuak baieztatu zuen txerri gripea piztu zela (20 bat pertsona hil zituen ordurako) eta apirilaren 25ean OMEk eginiko lehenengo bileran erabaki zuen larrialdi egoera ez igotzea. Izan ere, 2006ko hegazti gripearen krisitik 3. mailan zegoen ezarria alerta (hots, birusa badagoe, baina gizakitik gizakira pasa denik baieztatu gabe).

4. maila

Apirilaren 27an egindako bigarren bilkuran, pandemia arriskuaren larrialdi egoera 4. mailara igotzea erabaki zuen OMEk (gizakitik gizakira igorri da birusa).

5. maila

Apirilaren 29an, OMEk 5. mailara igo zuen larrialdi egoera: pandemia “berehalakoa” dela esan nahi du maila honek, gizakitik gizakira igorri dela birusa herrialde batean baino gehiagotan.

6. maila


lazko ekainaren 6an erabaki zuten pandemia izendatzea. Gaixotasuna geografikoki ugari zabaltzen ari dela adierazten du maila honek.

tseiluaren ikerketa. OMEko buruak dio erakundeak behar bezala egin zuela lan: “Gripe berriaren birusarekin zorte ona izan dugu. Zaintza sistema onak dituzten herrialdetara zabaldu zen. Mutatu izan balitz, ondorio oso latzei aurre egin beharko genieke orain”. Salvador Macip pandemietan adituak baina, argi du: “Pandemia larriren bat iristen baldin bada, ez dugu sinetsiko” (*El País*, urtarrilak 19).

Erakunde publikoen ahotik iragarpen apokaliptikoak jaso ditugu: “Europaren erdia kutsa daitekeela ohartarazi du EBk”; “OMEk aurreikusten du gizateriaren herena A gripeaz kutsatuta egon daitekeela 2010ean”

Albo-ondorioak

Oihartzun horren guztiaren kalteturik handiena, dudarik gabe, Mexiko izan da. “Alerta munduan Mexikoko txerri gripegatik”, “Mexiko, hiri fantasma”, “Mexikon hiltzea” moduko goiburuek gogor eragin zioten herrialdeko egunerokoari nahiz turismoari, eta mexikarren kontrako xenofobia adibide ugari piztu ziren AEBetan. *Garak* gaiari heldu zion maiatzaren 1ean, “Mexiko eta Estatu Batuak, birus bera mundu desberdinetan” artikuluan: birusak kalteturiko kasu gehienak bi herrialde horietan zeudela kontuan hartuz, egunkariak hausnartzen zuen zergatik turistek ihes egiten zuten Cancunetik, baina beteta zeuden New Yorkeko terrazak. ■



NOBEDADEA



Atlantika

zibilizazioen kode ezkutua



29 euro

ARGIÄren harpidedunek
%15eko deskontua

Argitu ezazu antzinako zibilizazioen
kode ezkutua eta bizi milaka abentura
jainkoen laguntzarekin.



20-40 min.

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com
www.luditoys.com

Luditoys



Aukeran, prest

Idazleen “auraz” jardun du Ixiarrek. Eta gai honek eztabaida ezagun batera garraiatu nau. Hain zuzen ere, idazleak konprometitu izan behar duen ala ez. Galderra zaharra da baina ttakunkideon artean ere behin baino gehiagotan azaleratu dena.

Badira idazleak Ixiarrek aipatzen duen loria erdiesteko idazten dutenak, eta adierazpenetan euren burua saltzeko ahalegin hau argiro islatzen dutenak; badira idazleak literaturarekin konprometituak daudenak. Hau da, kalitatezko lana egitea dutenak helburu eta euskal literaturari berrikuntzaren bat eskaini nahi diotenak. Eta badira idazleak, idazle bat sailkapen bat baino gehiagotan egon daitekeela onarturik, beren inguruko errealtatearekin konprometituak daudenak: errealtate soziala, politikoa, linguistikoa, eta abar.

Idazleak, berez, hausnarketarako joera naturala duela esan liteke: inguruko gertakizunek eta bizipenek elikatzen dute eta gertaeren, objektuen eta pertsonen aurrean gelditzeko ohitura dauka. Idazleak, errealtateari argazkiak ateratzeko ohitura dauka, ondoren, argazki diakroniko horren gainean, argazkiaren atzean dagoen errealtatea ulertzeko istorio bat antolatzen duela; eta beste batzuetan, idazlea, koadro bat pintatzen hasten da. Hau da, ingurutik hartu dituen langai eta detaileekin, errealtatea bere erara margotzen du.

Hori dela eta, idazleen gehiengoak era bateko edo besteko konpromisoa sentitzen eta praktikatzeko duela esango nuke, hausnarketatik edaten duelako; eta hausnartzen baldin, iritziari forma emanaz doalako, ezinbestean.

Idazleak denetik jakin behar du? Idazleak zernahiri buruzko iritzia izan behar du? Hauek eta beste asko galdetu izan ditugu eta dizkigute sarri. Batzuen erantzuna baiezkoa da eta besteena, aldiz,



Ana Urkiza

Padrón

Rozas

ezezkoa. Eta hortik datoz, hein batean, aurreko asteetan idatzi ditugun artikuluko batzuk eta baita Ixiarren azkena ere. *Argazkian ez ateratzeko ariketak* zen bere lanaren goiburua. Berak, kanpora begirako zurrumbilo honetatik kanpo idatzi ahal izatea aldarrikatzen du. Idazleari gaur egun aitortu zaion “aura” gabe.

Iritzia emateko eta kolaborazioak egiteko etortzen zaizkigun proposamenei, ordea, “aukeran, nahiago ez” esaten ikasi duela zioen. Niretzat, “aukeran, nahiago ez” horrek zera esan nahi du: “Ez dizut ezetz esan nahi, ez dut zurekin gaizki gelditu nahi, baina iruditzen bazaizu, bada, ez”. Bestearengan uzten dugu, ia-ia, erabakia. Bai, behintzat, erabakiaren pisua. Eta lanean diharduenak, pisurik gabe behar du lanean jardun.

Aurreko batean esaten zidan lagun batek, lantegian goi-mailako postu baterako deitu ziotela eta sekulako presioa sentitzen zuela. “Ni ezezkotan nago” esaten zidan (halako eta bestelako arrazoiengatik) baina presionatzen ari zaizkit. Eta oker zebilela esan nion. Lantegian proposamen bat egin zioten. Baina erabakia berea zen. Bera zen bere burua presionatzen ari zena, hartu behar zuen erabakia zaila zelako eta erabakigarria izan litekeelako.

Beraz, ez du esan nahi idazleak egiten zaizkion proposamen guztiei men egin behar dienik, ez baikara errobotak eta leku guztietara ezin baikara heldu. Baina, gure konpromisoaren aurrean, gardenak eta koherenteak behar dugula izan bai. Erantzukizuna geurea da; gutxienez, erantzunarena. Eta baiezkoa esanez gero, baita lerroarteratzen dugun iritziarena ere.

Niretzat, aurrera egiteko modu bat da. Ezagutzekoa. Ikuspuntu ezberdina gerturatzekoa. Horregatik, nik, printzipio bezala, nahiago dut esatea: “Aukeran, prest”. ■

Idazleen gehiengoak era bateko edo besteko konpromisoa sentitzen eta praktikatzeko duela esango nuke, hausnarketatik edaten duelako; eta hausnartzen baldin badu, iritziari forma emanaz doalako, ezinbestean

Joxerra Aizpurua
INDUSTRIA INGENIARIA

Libra gaitzatela epelkeriatik

Iruñean –1982ko udan– ezagutu nuen, UEUk antolatzen zituen jardunaldietan. Alfabetatze teknikoko ikastaroa izan genuen elkargunea. Hura irakasle zen, izen handiko ingeniaria, ordurako. Ni, ikasle soila.

Pare bat hitz egin orduko, Elhuyar-en parte hartzeko gonbitea luzatu zidan. Eta, nola diren gauzak, orduan ez nuen imajinatu ere egin, hurrengo hamahiru urteak inondik ezagutzen ez nuen talde hartan emango nituenik. Gogoko zuen *Elhuyar* aldizkarian idaztea. Gogoko zuen, bereziki, fisikako gaiak era ulergarrian ematea.

Gerora, maiz joan ginen harengana Bergarara, UNEDeko egoitzara, UEUn adar tekniko-teknologikoa antolatzeko xedez. Bilerak bukatuta, taberna izaten genuen elkarri agurra emateko tokia. Oliba-platertxoa zerbitu orduko, oliba bat hartu eta lurrera botatzen zuen beti, eta “orain ez duzue den-denak ez jateko aitzakiarik” eranstean.

Beti jendez inguratuta, herri askotako koa-driletan ezaguna, saltsa guztietan parte hartzen zuena, eta, halaber, astelehenetan fisikari buruzko artikulua zintzo-zintzo eta atzerape-nik gabe entregatzen zuena. Horrelakoxea zen Luis Bandres. Eta horixe da, haren gainean aipa dezakedan biografia zatia.

Baina bazuen besterik ere. Bazuen urrunago-koa zaidan beste aurpegi bat ere. Politikari izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundian diputatu, Eusko Jaurilaritzan sailburu.



DANI BLANCO

Azken hiru urteetan, Irungo ogasuneko afera itsusian nahasita ikusi genuen bere izena. Heriotzaren ostean, nigandik urrutien dauden alderdiak nabarmendu zaizkio argi-tara emandako biografia gehienetan. Edo, beste modu batera esanda, nik ezagutu nuen Luis Bandres, pertsona parrandazale eta lan-gile hura, denetarako denbora ateratzen zuena eta hain justu horregatik miretsi nuena, ez da inon islatu.

Mikel Laboa hil zenean, bati baino gehiagori entzun nion lamentua: “Bizirik zegoela egin behar zitzaion omenaldia”. Luisekin beste horrenbeste gertatu behar zuela erantsiko nuke. Kasu honetan ere, heriotzak irabazi digu partida. Eta aitortu beharra daukat, inork ez dugu mugimendu azkarrek egiteko ahalmenik izan. Ez nik, ez haren lankide izandakotik inork. Ez gara gai izan edo, gaizki pentsatzen hasita, ez dugu nahi izan. Akaso, ezagutzen ez dudun biografia hori dela kausa. Eta hala bada, madarikatzekoa iruditzen zait. Zipriztinen beldur direnekiko sentitzen dudun zartadu-ra gero eta sakonagoa da. Ez ditut perso-na perfektuak gogoko. Nekagarriak zaizkit, beti tonu berean, beti korrekto.

Faltan botatzen ditut imperfektuak, ini-ziatiba hartzen dutelako erratzen direnak, parrandaren biharamunean ere, buruko minez bada ere, epelak entzuteko bada ere, zintzo-zintzo behar den tokian egongo direnak.

Agurrik ez, Luis. ■

«
Faltan botatzen
ditut imperfektuak,
iniziatiba hartzen
dutelako erratzen
direnak (...)
Agurrik ez, Luis
»

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Profesionalak, herria-ren zerbitzariak, bote-rea ongia hedatzeko behar izaten duten horiek, ez dira betiko. Biziaren erdia besteei emanak igaro ondoren, azken laurdena baliatu behar izaten dute beren buruak zaintzeko eta bide batez bere inguru hurbileko ondo-rengoak hornitzeko, seme-alabek eta bilobek beren herriarekiko eskuzabaltasuna ordaindu beharrik izan ez dezaten. Ulergarria da, politikak ez du inor aberasten. Aste honetan bertan jakin dugu Javier Solana espainol sozialista entzutetsua Acciona talde industrial erral-doiak kontratatu duela aholkulari lanetarako, bere gara-

Politikari

den enpresa taldeak Solana bezalako aditu baten beharra du kontratu berriak lor ditzan. Ez du eskusiban kontratatzerik izan, Solanak bestelako aholkularitzak eta ardura profesionalak bai baititu onartuak, beti ere mundu bizigarriago baten xerka bere ideologia sozialis-tak hala aginduta. Ez da momentu txarra negoziotarako, tsunamiek, lurrikarek eta gainerakoek solidaritatea behar izaten dute desegindakoa berreraikitzeke. Accio-na behar dute, eta honek Solana bezalako jubilatatu adi-tuak, biziaren erdia ongia banatzeari emanak. ■

Pako Sindupe

IDAZLEA

Far Westeko Euskal Herria

Azken ehun eta berrogeita hamar urtean euskaldun asko joan da Ameriketara; liburu honek (*Far Westeko Euskal Herria*; Asun Garikano. Pamiela) Far Westera joandako euskaldunen berri ugari ematen du: gutun, bertso, kontakizun eta lekukotasunez baliatuz. Bost ataletatik luzeenak Mundu Berriko bizimoduak deskribatzen ditu.

Gogoan iltzatuak gelditu zaizkidanak artzainen eta abeltzainen arteko liskarrak izan dira. Lurraren jabetza eta larreen eta uraren erabilera egon ziren *comboy* eta euskal artzainen arteko kalapiten sorreran, baina gero beste batzuk erantsi zitzaizkien. *Comboy* gehienak gazteak ziren, ingelesdunak, zalduak eta bere buruaz harro zeuden. Prentsak eta Hollywoodek heroi mailara igoarazi zituen, eta haiek zabaldu-tako estereotipoaren arabera hasi ziren janzten: kapela handi, lepoko zapi eta bota berezi ezprouidunekin. Artzain euskaldunak, haien ondoan, egungo errumaniarren paretsukoak zirakeen. Hilketak gertatu ziren, gehienetan *comboy*ekin eginak edo eraginak, baina badirudi (W. A. Douglass. J. Bilbao; *Amerikanuak*, 1986) bortxakeriara baino gehiago auzitara jo zutela lur-jabe amerikarrek, bai baitzekiten estatubatuar justizia alde izango zutela.

1924an *Immigration Act* delakoarekin kuotak ezarri ziren. Afrikako herriek 100 lagunetik



DANI BLANCO

behera bidal zitzaizkien; 100ekoa zen muga Txinarentzat; 34.007 joan zitezkeen Ingalaterratik edo Ipar Irlandatik; 51.227 Alemaniatik; Espainiaren kasuan kuota 131 pertsonakoa zen; legeak amaitutzat ematen zuen Hegoaldeko euskaldunen sarrera legezkoa Far Westen; Frantziarentzat kuotak handixekoak ziren. Inperioa nola egin zen jabetzeko ere balio du *immigrazio* bereizketa horrek.

Amerikartuei eta haien ondorengo euskal-amerikarrei eskainitako atala laburra da, baina aski honako galdera hau planteatzeko: harro egon gaitezke euskaldunak, batez ere Bizkaia aldeko, Baztan eta Iparraldeko labo-

rari guneetatik joandako euskaldunek ehun eta gehiago urtean han egindako historiaz? Labur-zurrean eta salbuespenak salbuespen: lehen belaunaldiak gorriak ikusi zituen ingelesa ez jakiteagatik; bigarren belaunaldiak euskara baztertu eta ingelesa ikasi zuen, eta hirugarren belaunaldi ingeles-hiztuna saiatu da euskal erroak berreskuratzen, eta batzuetan hizkuntza. Ezin da gutxietsi, ezinbestekak eraginik, hizkuntza eta kultura arrotzetara ego-

kitzeko izan dugun trebetasuna euskaldunok, atzerrian bezala aberrian, frantses, espainol eta anglosaxoietara; haatik, harroago ginateke geurea gehiago zabaltzen, azkartzen eta indartzen saiatu eta asmatu izan bagenu, hots, hala egingo bagenu! ■

« harro egon gaitezke euskaldunak, ehun eta gehiago urtean han egindako historiaz? »

TXANDAN

Amatiño



Ozta-ozta, hiru hilabete baino ez dira joan Cegasak

Energiaren Euskal Klusterrean sartzea eskatu zuenetik. Zer arrazoi ote zegoen pila arruntak egiten 75 urte zeramatzan enpresak bat-batean erabaki hori har zezan?

Geroztik, arrapaladan, lauzpabost albiste gertatu dira bata bestearen ondotik. Lehenik Juan Zelaiaren enpresak berak iragarri zuen auto elektrikoentzako bateriak egiteari ekingo ziola. Gero, Energiaren Euskal Erakundeak eta Repsolek ituna sinatu zuten Euskal

Baietz lehenago izan

Autonomia Erkidegoan auto elektrikoentzako zerbitzu-sare aitzindaria inda-

rrean jartzeko. Ondotik Industria Sailak eta Mercedes Benzek elkarrekin hitzartu zuten furgoneta elektrikoak Gasteizen ekoizteko egitasmoa. Eta hau guztia gutxi bailitzan, datorren astean bilduko dira Donostian Europako Batasunaren Industria eta Berrikuntza ministroak auto elektrikoaren etorkizuna aztertzeko.

Nazioarteko Energia Agentziak aditzera eman duenez, 2030 urtean merkatuan egongo diren autoen %50 elektrikoak izango omen dira. Baietz lehenago izan. ■

ZIRTAK
Angel Erro

IDAZLEA

Hau mundu zonbi hau

Zein da ikusi duzun azkenengo pelikula? *New Moon*, *Crepúsculo* sagako bigarre-na, badakizu, banpiro eta gizotso nera-beei buruzko hura.

Ez da egia izango.

Ez, ez da egia. Hori ez da ikusi dudana azkena, baina pentsatu dut eman ahal zigula zer esana. Gizotsoek batez ere. *Won*, ze gorputzak! Emango nieke larru-pasada bat. Botagarri daude zokotronkoak. Zuri, berriz, egingo nuke, gehiago tiratzen dizula protagonista banpiroaren lerdentasun tormentatuak, dotorezia zurbilak, eta abar.

Aitormena baino ez didazunez onartuko... Gainera, abantailaz zabiltza: badakizu giharrek ez nautela bereziki erakartzen. Gizotsoen aurretik, eta terrorezko pertsonaia guztien gainetik, banpiroen xarma dago. Gaizkiaren alderdirik anbiguo eta erakargarriena.

Banpiroak? Zeharo XIX. mendeko produktua dira. Erromantizismoaren seme zintzoak baino ez dira, eternitatearen zorra larrutik ordaintzen duten izaki bohemioak. Drakula, Lord Byron edo Fausto doktorea ezpál berekoak dira. Gutaz ez dute ezer esaten. Zalan-tzarik ez, XX. mende hau mende zonbia da.

Mende hau?

Lehen hamarkada aurreko mendeari dagokio oraindik. Edozein modutan, ezin hogeigarren (zonbigarren?) mendea amaitutzat eman, Michael Jacksonen heriotzara arte. Jacksonen aurpegi birrindua beste argudiorik ez nuke behar, XX. mendea zonbitarra izan dela frogatzeko, baina pentsa ezazu, bestela, munstro hauek eragiten duten mutazio parazientifiko eta kutsatzearen paranoian (HIES edo A gripearekiko beldurraren paraleloa izan daitekeena). Gaur egungo debeku nagusiak ez ditu Elizak ezartzen, osasun printzipioek baizik.

Orain esaten duzula, horrekin lotuta, Rikardo Arregi Diaz de Herediari hitzaldi batean aditu nion oraingo gazteei ez zaiela, ez zaigula, su eternalarekin meha-



JOSU SANTESTEBAN

txatzen, gogoak agintzen duen eran egiteagatik, gaixotzearekin baizik.

Eta zonbitasunaren ezaugarriak ez dira osasunaren arloan gelditzen. Adar sozio-politikoak ere badu, banpiroen indibidualismoaren aldean, zonbiek taldea osatzen dute, alienazio argian daude eta gaizki antolatua (zonbi film bat ikusi duen orok badakienez). Zizeken hitzetan esateko, “zibilizazioaren hondakin organikoa” dira. Hori buruzko artikulua bat idatzi dut nire blogean. Pasako dizut lotura.

Zuk ere Zizek aipatu behar duzu? Dagoeneko ez gaude inon libre.

Zonbi moduan bizi, biziraun edo hiliraun; zonbi moduan bozkatu eta kontsumitu. Eta, zenbaitetan, zonbi moduan protestatu. Ez dirudi oso erakargarria baina hau da egokitu zaiguna.

Aurten arte; aurten, zuk esan bezala, XXI. mendea hasten baldin bada. Akaso post-zonbiak izateko suertea izanen dugu. Nik hori behintzat argi daukat. Beldurrezko film batean bezala, ihesbiderik gabe banengo, zentzuzkoena eginen nuke, hau da, neure buruaz beste egin, inoren hatzaparretan sufritu behar izan baino lehenago.

Irtenbide hori ere oso hemeretzigarren mendekoa da, adiskide. Banpiroak, suizidioa... Ene, beste egun batean geldi gaitezke karlistadez ere hitz egiteko.

Hor ez nauzu harrapatuko. Onartzen dut erromantizismoak ongi zamatu duela buru-hilketa (poetek hor izan dute erru handia) Niaren muturreko minaren irteera natural moduan agertzeraino. Hortik, XX. mendeko suizidioaren izaera psikiatrikora pasa gara. Baina nik uste suizidio postmoderno topatu dudala. Interneteko gizarte sareetatik norberaren arrastoa guztiz desagertzen duen programara (www.suicidemachine.org) joko dut, gehiegi *zonbitu* baino

lehenago.

Eta orduan zeini idatziko nioke nik? ☹️ ■

«
Zonbi moduan bizi, biziraun edo
hiliraun; zonbi moduan bozkatu
eta kontsumitu. Eta, zenbaitetan,
zonbi moduan protestatu.
Ez dirudi oso erakargarria
baina hau da egokitu zaiguna
»



irudia:

Antton Olariaga

Hernaniko bertsolaritzari jarriak

I

Hazi, sabel ta emagin (Bis)
sortu ta sortzen eragin
aho ahoz eskuz esku
bertsolaritza Hernanin.
Hazi, sabel ta emagin
bertsolaritza Hernanin.

II

Olegarioren plazerra (Bis)
zaldi ta karro ederra.
Gaur egun kotxea baina
Txirritak bere txoferra.
Olegarioren plazerra
Txirritak bere txoferra.

III

Urumeatik barrena (Bis)
zer da urak dakarrena?
etxero bertsolariak,
bertsolaritzan edena.
Urumeatik barrena
bertsolaritzan edena

IV

Paulo Txikiaren bira (Bis)
ordu txikitako jira.
Bertsotatik bizikletaz
Arizkundik Hernanira.
Paulo Txikiaren jira
Arizkundik Hernanira.

V

Tturko, Garin ta Aterpe (bis)
Patxi Odriozola fuerte,
bertsoaren surik ez zen
garai gogorren aterpe.
Tturko, Garin ta Aterpe
garai gogorren aterpe.



DANI BLANCO

VI

Gaurkoa omen da moda (bis)
Amurizan kurtsillora
bi hilabetez joan ziren
ehun lagunetikan gora.
Gaurkoa omen da moda
ehun lagunetikan gora.

VII

Ikastaroa zimendu (Bis)
ondoren bidea sendu,
bizarrak zuritu dira
suak gorri jarraitzen du.
Ikastaroa zimendu
suak gorri jarraitzen du.

VIII

Langilen ta Urumean (Bis)
bertsoa ikasgunean
indarrak bildu zituzten
gehien behar zen unean.
Langilen ta Urumean
gehien behar zen unean.


IX

Zenbat tanta olatuak (Bis)
norberera moldatuak.
Joan-etorrian iturri
batetik abiatuak.
Zenbat tanta olatuak
batetik abiatuak.

X

Lanak bere herentzia (Bis)
emana eta utzia:
Bi txapel ta buru asko
hor dago diferentzia.
Lanak bere herentzia
hor dago diferentzia.

DOINUA: Kopla.



Bidali zure sortak **bertsoak@argia.com** helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kainera

Joaldunak

Norena da copyrighta?

Joaldun taldeak Europa osoan dira ezagun, baina Euskal Herrian bederen, urte luzez Ituren eta Zubietan baizik ez da gorde ohitura hori. Azken bi hamarkadetan, berriz, talde askok ekin diote joare jotzeari, eta sortu den egoerarekin deseroso daude Malerreka aldean.

UNAI BREA

INAUTERIAK URTEZ URTE egutegian egiten dituen jauziei kasu handirik egin gabe, Ituren eta Zubietan urtarilaren azken igandea daukate ezarrita ospakizun horren mugarri: data horren osteko lehen astelehenean eta asteartean ospatzen dituzte aratustekak. Aurtent, otsailaren 1ean eta 2an. Astelehenez

zubietar joaldunak Iturenara, biharamu-nean alderantziz; bisita egileak, bide erdian, Iturengo Aurtitz auzokoekin elkartuko dira, hiru baitira joaldun taldeak, ez bi.

Astelehen-asteartez lanaren kateari ihes egitea erraza ez den arren, joareen burrunba bertatik bertara entzun nahi duten Euskal



DANTZAN.COM



MARINA AIZ MONREAL

Ezkerreko irudian, iazko Joaldunen Festa, Tafallan. Euskal Herriko Joaldunen Biltzarrak 2002an egin zuen jai hau lehenbiziko aldiz, eta dagoeneko 25 talde inguru elkartzea lortu dute.

Herri osoko jendeez beteko dira Malerreka-ko bi herri ospetsuak egun horietan. Pribilegio hori ez daukatenentzat bada beste aukerarik: lauzpabost hamarkada dira Aurtitz, Ituren eta Zubietako joaldunek –talde bakoitzak bere aldetik– beren herritik kanpo ere jotzen dutela. Baina diotenez, aspaldi honetan, azken hamar urteetan jo dezagun, ez diete hain sarritan deitzen. Arrazoia sinplea da: lehiakide mordoa dute. Errola zehatzik egin ez bada ere, esan daiteke gutxi gorabehera 30 joaldun talde dagoela gaur egun Euskal Herrian; Zuberotan izan ezik herrialde guztietan aurkitu daiteke baten bat. Erdia baino gehiago, Nafarroan.

Iturendar eta zubietarrak ez daude gus-tura egoera horrekin. Duela hogeiren bat urte lehenbiziko taldeak sortu zirelarik Iruñerrian, ez ziren biziki kezkatu. Orain, berriz, ibaiko urak gainezka egin duela uste dute. Hala adierazi digute Zubietako ostatuan egindako elkarrizketan. Bi iturendar eta aurtiztar eta zubietar bana aritu dira gurekin solasean.

Ikusi, gustatu... eta kopiatu

Boom-a duela hamar urte inguru gertatu zela dio Pello Santesteban Zubietako joaldunak.

Talde askok beren herrietan bizi diren zubietar edo iturendarren eskutik ikasi dute joare jotzen

“Herriz herri ibiltzen ginelarik, bertakoek ikusten gintuzten eta nonbait, kopiatzeko gogoia sortu zitzaion askori. Etorri nahi izaten zuten, hemen ikasi...”. Zubietan hartu izan dute talderen bat zerbait irakasteko asmoz, Aurtitzen ere egin izan da saiorik, baina ikasi, inork ez duela benetan ikasi diote bai Santestebanek bai Karmelo Aioroa aurtiztarrak. Iturengo Pello Ariztegik, aldiz, azpimarratzen du beren herrian sekula ez zaiola inori irakatsi, eskariak jaso dituzten arren. Jarrera hori da gaur egun hiru herrietan indarrean dagoena: kanpoko inori ez irakastea. Izan ere, aspaldian inork ez die eskatu. Agian *boom*-aren aparra behera doalako eta jadanik inork ez duelako ikasteko grinarik, agian balizko eskatzaileak badakielako ezezkoa jasoko duela.

Nola edo hala ikasiko zuten, hala ere, sortu diren talde horiek. Berangoko (Bizkaia) Jon Zelaiak diosku, esaterako, berak eta bere taldeko zenbait kidek Zubietan ikasi zutela joareak nola lotu eta nola jo, bertara bi aldiz joanda, duela hamarren bat urte. Pello Santestebanek ez du hori gogoa, baina edozein kasutan, salbuespena da berangotarrena. Talde gehienek beren herrietan ikasi dute. Beteranoenak, denak Iruñea ingurukoak, bertan bizi ziren zubietar edo iturendarren eskutik. Gerora ere hala ikasi dute batzuek. Eta gainerakoek, dagoeneko zekitenek irakatsita.

Ikasi bai, baina fundamentu handirik gabe, iturendar eta zubietarren ustetan. Ez janzeran, ez ibiltzeko eran... Bigarrenari erreparatzen diote batez ere. Beren herrietan hurrek oso txikitatik paratzen dituzte joareak, eta ibiltzen ikasi. Ez dago horretarako eskolarik, ez entsegu-aretorik, ez inolako antolamendurik. Transmisioa etxean egiten da, aitaren eskutik ez bada osabarenetik edo bestela auzoarengandik. Gero, errege bezperan, nahi duen oro ateratzen da joare jotzera. Kanpotik joandako jendeak ere atera izan dira, gorago aipatutako berangotarrak kasurako. Kontuak kontu, iturendar eta zubietar joaldunen ibiltzeko erak txikitatik ikasteak ematen duen naturaltasuna nabarmendu dute gure solaskideek.

Kanpoko taldeek ez dutena, bistan dena. “Guk hemen ia-ia oinez normal ibiliko bagina bezala ibiltzen gara joareekin”, azaldu digu Iturengo Javier Bereauk, “kanpoko taldeak, aldiz, kolpea jotzeaz baizik ez dira arduratzen, eta ez dira natural ibiltzen”. Erritmoan ere alde ederra dagoela dio Santestebanek. Alegia, kanpoko taldeek ez dutela lortzen kide guztiek kolpea aldi berean jotzea.

Eskuineko argazkian, Berangoko dantza taldeko lau kide Zubietan, joare jotzen ikasteko ahaleginean.



JON ZELAIA

Kalitatea gorabehera, kantitatea da Ituren eta Zubietan kezka eragiten duena. Honezkero ez dute begi onez ikusten kanpoko hainbeste taldek joareak jotzea, ezta primeran egingo balute ere. “Joaldunak sinbolo bihurtu dira Euskal Herrian eta horrek eragin du hainbeste talde sortzea. Guretzat urguilua da hori, baina uste dugu azken urteetan gaineraz egin duela honek”, dio Javier Bereauk. Jarrera hori ulertzeko, mugari bat aipatu behar da ezinbestean: Euskal Herriko Joaldunen Biltzarraren sorrera, non ez dauden ez iturendar ez zubietarrak.

Hamarkada bateko ibilbidea

Joaldunen Biltzarraren hazia Iruñean erein zen duela hamarren bat urte, Alberto Jurado atarrabiarrak, sortzaileetako batek, gogoratzen duenez: “Ez naiz oroitzen zer ospakizunetan giroa emateko deitu ziguten Iruñerriko hiru talderi. Oso gustura ibili ginen eta erabaki genuen urtero elkartzea joareak jotzeko”. Pixkanaka beste talde batzuekin harremanean jarri ziren, eta Biltzarra sortu zuten, urtean behineko topaketa egiteko xede bakarrarekin. Halaxe segitzen dute, urtero herri batean eginez, eta honezkero Euskal Herri osoko taldeak elkartzea lortu dute. Aurten Irurtzunen dute hitzordua, heldu den martxoaren 19an, eta 25 talde inguru egotea espero dute.

Zubietarrak eta iturendarrak ere gonbidatu zituzten, baina haiek uko egin zioten Biltzarrean sartzeari. Pello Santestebanek ez du orduan egin bileren oroitzapen goxorik: “Egiten badute, egin dezatela, baina errespetuz, eta guk ez genuen hori sumatu. Gu izan gara ohitura honi eutsi diogunak. Beste herrietan joaldunak izan badira, izan diren bezala, galdu dira. Oraingo talde guzti horiek gure inguruan sortu dira, eta errespetua eskatzen diegu: ez dezatela sortu elkarte bat, Euskal Herriko joaldunen elkarte direla esanez, eta gero gu hor sartzen saiatu. Beraiek ez zuten interesik elkarte gure inguruan osatzeko, gu beraien barrenean sartzeko baizik”.

Ondorioz, behar luketen errekonozimendua ukatzen zaiela uste dute Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunek. “Orain itxura du leku guztietan zeudela joaldunak,

eta guk aldarrikatu nahi duguna da ez dela ahaztu behar hemendik zabaldu dela ohitura hori, hemendik heldu dela”. Esandako horrekin ez dator bat, ordea, Alberto Jurado: “Guk, bere momentuan, eskaini genien beraiek izatea beti kalejirako burua, aitorzeko beraiek izan direla ohitura honen gordetzaileak, ezen ez asmatzaileak, gauza jakina baita Nafarroa osoan izan direla joaldunak. Gainera, kritika egin ziguten ez genituelako gauza batzuk ongi egiten, janzkera aldetik eta abar, eta guk konpromisoa hartu genuen haiek esandakoa aintzat hartzeko. Baina ez zen nahikoa izan”.

Erantzuna, patentea

Gauzak horrela, Euskal Herriko Joaldunen Biltzarrak iturendar eta zubietar gabe jarraitu zuen bidea egiten, eta gaur egun ez dago alde bien arteko inolako harremanik. Esan daiteke, hori bai, orduko liskar haien ondorioz finkatu zela Malerrekaok gaur duten jarrera. Besteak beste, hiru herrietan elkarte bana sortu zuten, ordura arte ez baitzuten, patente bat egiteko asmoz. Hala, “joaldunak” izena patentatu zuten, hala nola “zanpantzar”, okerra izanagatik joaldunak izendatzeko barra-barra hedatu den hitza, auskalo noren eruz. Patentatu zituzten, halaber, beren inauteriko pertsonaia batzuen irudia, joaldunena barne, baina irudia baizik ez. Joare jotzen leku batetik bestera joateko ohitura bera patentatzea ezinezkoa da, asmatzailea ezezaguna baita. Hala adierazi digute Nafarroako Jabetza Intelektualaren Erregistroan. Honenbestez, patenteek ez dute izan ondorio praktikorik, eta ez da hori ere Ituren eta Zubietakoen helburua. Besterik gabe memoriaren gordailua izatea nahi dute. Euskal Herrian joareekin dabiltzan beste taldeen ustez, baina, funtsik gabea da haien beldurra: ez dute inoren memoria usurpatzeko asmorik. ■

“Aldarrikatu nahi duguna da ez dela ahaztu behar hemendik zabaldu dela ohitura hori”

**PELLO SANTESTEBAN,
ZUBIETAKO JOALDUNA**

Musika

Bidehuts

Hutsik dagoen bidea betetzen

2006an sortu zenetik, Bidehuts zigilupean hamar erreferentzia musikal argitaratu dira. Autoekoizpena ardatz nagusitzat hartuz, musikaren inguruan duten ikuspuntuak elkartzen ditu musika talde arrunt ezberdinak. Familietan bezala, hemen ere era guztietako musikariak onartzen baitira, betiere Bidehutseko filosofia betetzen bada.

LANDER MUÑAGORRI

Argazkiak: Dani Blanco

IBILIAN-IBILIAN egiten da bidea. Hutsik daudenetatik, betetakoetatik edo inon ez daudenetatik. Ibiltzeko gogoia daukanak beti topatuko baitu, edozein lekutan dela ere, norabait eramango duen bideren bat. Urrats handiak edo txikiak izan, horrek ere ez du axola, pauso bat ematen den bitartean urrunago iristen baikara.

Lisabö, Inoren Ero Ni, Hotel eta Anari 2006an hasi ziren ibilian. Biderik ez, baina buruan zeukaten nora joan. Beraz, laneko galtzak jantzi eta jo eta su hasi ziren Bidehutsen lehen harriak pausatzen. Egun oraindik bidea egiten ari baldin badira ere, bizkarrean badituzte dagoeneko hamar argitalpen eta hamaika kontu. Edozein ibilaldi konpainia onean beti gusturago egiten baita.

Askatasunaren errepidean barna

Norabidea beti eduki izan dute garbi partaideek: autoekoizpena. Eta egun oraindik ez dute atzera bueltarik eman noranzko horretan. Hasiera hartatik zeukaten asmo bakarra da hori, argitaratzen den lan bakoitza norberak borrokatua izan behar dela. Bidehutsek ez du diskoetxe arruntaren lana egiten, nahiz eta ekoizpenaren katean laguntzak eskaintzen dituen.

Talde bakoitzak askatasun osoa dauka argitaratuko dena ekoizteko. Formatua ere ez da inongo eragoz-



Hamar disko bi hitzetan... edo hirutan

LISABÖ *Ezlekuak*, 2007 (CD/180 gr. lp + CD):

Asier Zulueta: "Hasiera, ilusioa".

HOTEL *Suites*, 2007 (70 gr. 7" single vinyl):

A.Z.: "Poza. Lehendabiziko diskoa argitaratu eta oraindik bigarrena egiteko gogoia edukitzearen poza".

ANARI *Zuzenean*, 2008 (CD):

A.Z.: "Ia-ia pentsatu gabeko zerbaite izan zen. Anari *Zebra* diskoaren aurkezpen bira amaitzen ari zela, kontzertu haien testigantza eduki nahi zuela esanez etorri zen. Ez zuen disko luze bat plazaratzeko eran ikusten, *Zebra*-ko kantak zuzenean erregistratuta. Bost kantako CD bat argitaratu zen orduan, abesti zaharrak *Zebra*-ren filotrik igarota. Ez dakigu sail honetan beste argitalpenen bat egongo den, irekita dago".

INOREN ERO NI *Gronhölms*, 2008 (180 gr. mlp + CD):

A.Z.: "Askatasuna. Talde batek bost kantuko binilo bat barruan CDa duela ateratzea, askatasun horren erakusgarri da. Diskoetxe batera proposamen hori hamar eurotan saldu nahi duzula esanez joanez gero..."

GORA JAPON *Gora japon*, 2008 (CD):

Eneko Aranzasti: "Ordura arteko disko guztien azalak txuri-beltzean izan ziren. Ez zen nahita egindako ezer izan. Eta orduan Gora Japonen azal koloretsu hau heldu zen. Bidehutsi kolorea eman ziola esan liteke. Aspaldian entzun dudak diskorik freskoena izan zen gainera. Gora

Japon lehen aldiz entzun eta esan nuen: joder, gora Japon!"

cOUPAGES#01 *Inoren Ero Ni/Lisabö*, 2008 (70 gr. 7" single vinyl):

A.Z.: "Elkarlana, eta izateko arrazoia. Lehenengo argitalpena izan behar zena".

WILLIS DRUMMOND *Willis drummond*, 2008 (CD):

E.A.: "Poztu nintzen geuregana etorri izana. Eurekin erlazioa aspalditik geneukalako, eta egiten duten musikarengatik".

INOREN ERO NI *Fosbury*, 2009 (180 gr. mlp + CD):

E.A.: "Aldaketa. Mikel Abrego beti ikusi izan dut Drake-ren ondoan. Bap!!-en Inoren Ero Ni-n, Anarirekin..."
A.Z.: "Jauzia".

ANARI *Irla izan*, 2009 (CD/180 gr. lp + CD):

E.A.: "Disko hau egiteko Anariren ausardia".
A.Z.: "Gailur bat".

AUDIENCE *A shake in calm water*, 2009 (CD/180 gr. lp):

A.Z.: "Bidehutsen diskoaren izenburuak dioena suposatu zuen. Gu lasai ginen, bagenekien uda eta gero bi disko izango genituela, eta bat-batean hirugarrena etorri zitzaigun. Hein horretan dardara bat izan zen bare zegoen eremuan. Eurak izan dira hamargarrenaren harrotasuna".



pena izaten; LPa, binilo singlea edota CDa, sortzaile bakoitzak erabakitzen du euskarria zein izango den. Kasu horretan ikus daiteke Bidehutsen askatasuna erabatekoa dela, eta elkarteak ez dituela mugak ezartzen.

Sorreraren aurretik, hainbat elkarrizketa izan zituzten hasierako partaideek. "Artean oraindik Metak diskoetxean geunden, eta zenbait taldek bazuten nahi bat gauzak beste era batera egiten hasteko" azaldu du Asier Zulueta Bidehutseko kideetako batek. "Hasierako nahia, Inoren Ero Nik eta

Lisabök elkarren artean binilozko single bat argitaratzea zen" jarraitu du. Orduan nork gutxiak argitaratzen zituen biniloak, eta gutxiago oraindik singleak baziren. Genesi hartako proiektu hark gramaje eta diseinu zehatz bat edukiko zuen, "kapritxoia zen, azken finean". Baina lehenengo erreferentzia izan behar zuen hura atzeratu egin zen azkenean –cOUPAGES#01 2008an argitaratu zen, Bidehutsen seigarren argitalpena–, eta Lisabören *Ezlekuak* (2007) izan zen estreinako lana.

Irundarren diskoa SGAEren saretik kanpo plazaratu zuten, baina horrek ez du inongo talde baldintzatu. “Disko guztiak desberdinak izaten dira, eta Bidehutseko hainbat erreferentzia SGAEen lizentziatu dira. Alde horretatik ez dago arazorik, talde bakoitzak aukeratzen baitu zer egin nahi duen bere lanarekin” azaldu du Eneko Aranzasti Bidehutseko kideak.

Biniloaren kultura sustatzen

Elkartearen zimenduan filosofia konkretu bat dago: diskoaren izaera artistikoa berreskuratzea. “Diskoa gaur egun produktutzat hartzen” baita Aranzastiren ustetan. “Artelan horrek diruarekin duen lotura apurtu beharra” azpimarratu du.

Bidehutseko partaide diren taldeak askotan elkarrengandik urrun daude, estiloari begiratzen badiogu. Baina “Bidehuts eta taldeen artean erakarpenera artistikoa dago, musika ulertzeko moduan. Musikalki oso ezberdinak izan daitezke, baina elkargune bat daukate euren artean” azaldu du Aranzastik.

Arestian aipatutako izaera artistiko hori berreskuratzeko lanean, biniloak bere pisua dauka. Bidehuts-eko zenbait argitalpen euskarri horretan plazaratu dira, batzuetan karpeta barnean diskoaren CD bertsioa eskainiz. Musika ulertzeko erak lotu ditu formatu horretara. Txantxa eta irri artean, “Euskal Herrian biniloa eta rock kultura sustatzeko elkarte bezala erroldatuta” daudela zehaztu du Zuluetak. Lortuko ote duten edo ez, hori beste kontu bat da, baina bien bitartean biniloaren eskaintza areagotzen ari da Bidehutsen eskutik.

Entzulearengana inguratzen

...baina Bidehutsen izena jendeak ezagutu dezan, eurengana inguratzea ezinbestekoa da. Egitasmoa ezagutarazteko asmo horrekin, aurtengoan estreinako Durangoko Azokan stand bat jarri du elkarteak. “Eta ez gara azken erreferentziak aurkeztera etorri, katalogoa bere osotasunean baizik”, Aranzastiren



Eneko Aranzasti eta Asier Zulueta goiko argazkietan. Bidehuts zigiluan sorreratik lanean ari diren lagunetako bi dira. Durangoko Azokan hitz egin genuen beraiekin (ikusi 28. orrialdeko argazkian Anari eta Mikel Abrego, standean lanean). Asier Zuluetak dio ez zutela espero hamar erreferentzia publikatzera iristea. Baina iritsi dira. Sekretua? Eneko Aranzastik dioenez, Bidehuts eta taldeen artean erakarpenera artistikoa dago, musika ulertzeko moduan.

Norabidea hasieratik izan dute garbi: autoekoizpena. Bidehutsen argitaratzen den lan bakoitza norberak borrokatua da. Ez dute diskoetxe normalaren lana egiten, ekoizpenean laguntzen duten arren

esanetan. Hainbat diskoetxe bi edo hiru argitalpeni berebiziko garrantzia ematea kritikatzen du, eta katalogoaren izaera berreskuratu behar dela azpimarratu. “Niri taldeez gain, diskoetxeak ere interesatzen zaizkit”.

Autoekoizpenak diren neurrian, diskoen banaketa arazoa da. Zuzeneko emanaldietan katalogoko erreferentziak lortu ahal badira ere, dendetan ere saltzen dute. Banaketa lan horretaz Gor diskoetxea arduratzen da. Zulueta ustez “ausartak izan ziren. Proiektua aurkezterakoan abstrakzio batekin joan baizik”. Biniloen banaketan ordea ez dute eskurik hartzen, eta Bidehuts bera arduratzen da euren hedapena bermatzeko.

Hiru urte igaro berri dira Bidehuts sortu zenetik, eta bi lehen erreferentzia kaleratzen. Ez da denbora larri hutsa zegoen bidetik lehen pausoak eman zituztenetik. “Ez genuen sekula pentsatu hamar erreferentzia izatera iritsiko ginenik” dio Zuluetak. Autoekoizpenak eta askatasunak eskaintzen dien bidea emankorra izan da, baina ez horregatik lanik gabea. Etorkizunari begira lanean jarraitzeko gogotsu agertu dira bi elkarriketatuenak. Orain arteko bideari segituz gero, entzuleok esker ona adierazi besterik ez dugu izango. ■

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Sedukzioaz.
Anger.
Musikherria.
Iraupena: 39'11".

Arrosak edertasunean arantzak ere baditu

ARRASATEKO laukoteak gazte-gaztetatik oso argi zuen taldea ez zela inoiz helburua izango, beraien barrenak husteko erreminta baizik. Metal kutsuko doinu gogorrak lantzen hasi ziren, eta poliki-poliki bestelako sonoritateetan murgildu ziren. Orain dela hiruzpalau urte kaleratu-tako *Biluztu* diskoarekin melodiaren eta indarraren arteko oreka borobila lortu eta hitzekin kritika zorrotza egin zioten gazteriari. Orain, jauzi askoz handiagoa

eman, eta gizartearen kontraesan eta itxurakeria azaleratzeaz gain, konposizio, instrumentazio eta giro oso landuak dituen diskoa egin dute. Metal oinarrien gainetik salto eginda, post-hardcorearen erreka zabaletan igeri egin eta doinu eta melodia oso irekietara itsasoratu dira; betiko moduan, umiltasunez baina emaitza oso txukunarekin.

<http://angerweb.net>

Arkaitz Biain - Anger

«Denborarekin konturatzen zara gauzak bortizki esateko ez dela derrigorrezkoa kaña egitea»

Denbora luzea pasa da *Biluztu* kalera-tu zenutenetik. Ez zarete talde bezala "inor izango"...

Biluztu kaleratu eta gutxira bate-riak hainbat istripu izan zituen, eta ordezkioak probatu genituen. Gero-ra, taldekideok lanpetuta ibili gara. Sormen eta beharren arabera egiten ditugu diskoak, ez gara jende-ari begira egoten. Dibertitzeko eta gure ideiak transmititzeko da taldea.

Hardcore eta post-hardcore giroetan gustura zaudete, baina hastapeneta-ko metala ez duzue erabat alboratu...

Beñat gitarra jotzailearekin ezin da [barrez] eta egia da oinarria badu-gula, baina hardcoreak gehiago era-kartzen gaitu. Hastapenetan ez nin-tzen metaleroa sentitzen, ezaugarri oso matxistak dituelako. Aldiz, hardcoreak bestelako ereduak ditu: autogestioa, eraikitzea, emozioa... Zuen kantuek melodia eta indarraren arteko oreka dute. Natural iriteten da?

Nahiko natural, baina oso gus-tuko dugu eta bila ere joaten gara. Hamabost urterekin musika gogo-rrak seduzitzen zaitu, baina gero konturatzen zara gauzak bortizki esateko ez dela derrigorrezkoa

kaña egitea. Horra hor Gose, esa-terako.

Zita eta liburuen erreferentzia asko daude diskoan. Irakurtzen ez duen herriak ez du ezer aldatuko?

Baliteke. Gai batzuen gainean jan-tzita egoten ez bagara, eta komunika-tzen ez badugu, jai daukagu herri bila-kaerarekin. Orain da garaia Euskal Herrian halako gaietan sakontzeko.

Zergatik disko arrosa?

Unai Bergara diseinugileak hala proposatu zigun eta aproposa iruditu

zitzaigun. Anger-metal-beltza irudia-rekin apurtzeko batetik; eta seduk-zioaren gaiarekin ere oso ondo dato-rrelako bestetik.

Zer balore berreskuratu beharko lituz-ke gizarteak?

Gizarte hedonistan bizi gara, sakrifizio gabe plazera nahi dugu eta gozamina ez dugu helburu moduan ulertzen. Bestalde, kolektibotasuna landu behar dugu: uste dugu bakar-ka askeagoak garela, baina batuz gero gara libreagoak. ■



Liburuak

KRITIKA

Xabaltx.
Xabaltx.
Maiatz, 2009.

Helduen literatura

Igor Estankona



Lautadetako haizea

SARAKO idazleen biltzarrera Maiatzekoek uzta beti interesgarria ekartzen dute. 2009ko apirilean Xabaltx zuraidarraren letraz osatutako liburuak agertu zen aipatutako elkartearen eskutik. Poema liburu baten antzera irakurri dugu, tributu baten moduan ulertu, eta musika bera bezala gozatu. Daukan barne-erritmoagatik izango da agian. Nafarroa garaian bizi den kantariaren *Xabaltx & H2O* (1994, autoekoiztua), *Zalan-tzak* (1998, IZ), *Gauerdia pasa eta* (2001, Agorila), *SMS galduak* (2005, Gaztelupeko Hotsak) eta *Cymens* (2009, Agorila) disko-etako letren hustuketa honetan murgiltzea abentura polita da, nahiz eta piezetako asko, normala denez, pobreak izan irakurtzeko eta egokiagoak kantatzeko. *Zu gabe*, *Eresia*, *Izarren bizia*, *Satelita*, *Zaldi ibiltari* eta halakoez ez dute funtzionatzen liburuan, baina beste batzuk itzelak dira –*Chico Mendez*, *Arin arin*, *Mozarten Lacrimosa*–. Are gehiago: itxuraz xaloak diren letra jakin batzuetan geratu zait iltzatuta gogoia. *Belar hoberena* da adibide on bat: zuzen eta garrantz hitz egiten du Xabaltxek autoritarismoaren kontra.


Hitzetako asko maila poetiko altuegikoak ez direla jakin arren, barrunta daiteke abestia euren baitan, musika euren eitean. Neil Youngekin gertatzen den bezala –ez da, inondik ere, konparagarri–, letrak goratu egiten du kantua. Hori meritu handikoa da, musikaltasuna eta esanahia uztartu behar baitira.

Arestian aipatutako horregatik guztiagatik atsegin ditut, txarragoak edo hobeak, inoren leterekin ez dabiltzan kantariak. Cohen, Jim Morrison, Dylan, Víctor Jara, Silvio edo Moustaki dira batzuk –askorentzat poesia irakasle–, baina hurragokoak eta bikainak dira, baita, Juan Carlos Perez, Niko Etxart eta Anje Duhalde. Xabaltx azken hauen arrazakoa da, eta Lou Reeden senidea: idazle moduan ez hain poeta, poeta moduan ez hain idazle... musikari, finean.

Xabaltxek ekologiari, gizarte arazoei, alaitasunari eta amodioari kantatzen dienean, beti kantatzen die musikariaren askatasun-senarekin. Azken mohikanoaren antzera, arean bakartia du tonua, arean iluna, baina era berean kultura eta erreferentziak bete da bere idazkera. Zabalza baserriko semeak asko ikusi du bizitzan, eta liburu honetan ageri da garbi zelan fenixa behin eta berriro itzultzen den errautsetatik. Liburu sano gomendagarria da, zuzena delako. Lore ximelduen enpalagua larregizkoa denean irakurtzeko modukoa. ■

Antsoren dorreak poltsiko edizioan

Toti Martinez de Lezea gasteiztarraren nobela ezagunenetakoa da *Antsoren dorreak*, jatorriz 1999an gaztelaniaz argitaratua, *Las torres de Sancho* izenburuarekin. Erein argitaletxeak euskaletz itzulpena plazaratu du orain, poltsiko edizioan. Eleberri historikoa da *Antsoren dorreak*, Nafarroako erreinuaren garairik distiratsuenetako batean kokatua.




Antsoren dorreak.
Toti Mtz. de
Lezea.
Erein.
491 orrialde.
11 euro.

1004. urtean koroatu zuten Antso III.a Handia da nobelaren erdigunea: hark izandako maitasun gorabeherak, gorte barruan zeuden botere borroak, erlijioen arteko gatazkak, Erromak Done Jakue Bidearekin zuen interesa... Garai historiko hartako hainbat zertzelada aurkituko ditu irakurleak gaztelaniaz arrakasta handia izan zuen lan honetan. ■

Afrikarekin zorretan gaudela gogoratzeko

Titulutik argi adierazi nahi izan dute Imanol Barrenetxeak eta Ekain Martinez Lizarduikoak: *Afrikari zor dioguna* jarri diote izena Gaiak argitaletxearen eskutik publikatu den dibulgazio lan honi. Kontinente horri buruzko estereotipoak, aurreiritziak eta juzku okerrak baztertzeko gonbidapena egin dute lehen orritik. Eta hori egiteko, ezinbestekoa da informazioa. Afrikari buruzko hurbiltze orokorra da liburuaren lehen kapitulua. Ondoren, kulturari buruz idatzi dute, aberastasuna azpimarratuz. Eta hortik aurrera, bete betean sartu dira erlijioan, lehen gizakian, kontinentearen historian (kolonizazioa, deskolonizazioa, egungo egoera), natura bazterrean utzi gabe. ■



Afrikari zor dioguna.
I. Barrenetxea/ E. Mtz.
Lizarduikoa
Gaiak.
161 orrialde.
19 euro.

A N A Z A M B R A N O

ADARREZ JOKA	↓	TRENA DABI- LEN BIDE	↓	ETA ABAR (LABURDURA)	 GAIZKA IROZ	BURUKO JANTZIA	↓	EMAKUME, ANDERE	↓	DONARIAK, GOLARDOAK	↓
MADARI		Sortu Zintuena	↓			NAHIGABE, PENA		PERTSONAIA- REN IZENA	↓	APO- PERREXIL	↓
SETA (ALDE- RANTZIZ)	→					GIZONEZKO IZENA	→				
PERTSONAIA- REN ABIZENA	↓					INTSEKTU SOZIALA	↓				
POTASIOA	→	BANKA BURTSAK	→	ZERBAITE- RAKO TRESNERIA	↓	HONDATU, GALDU	↓	HOBERA	→		
KALIKA JOKOKO MAKILA		LATSAN ARI DENA	↓	INDAR- UNITATEA	↓	ERREPIKA- TUZ, TXORI MOTA	↓			NOR KASUA- REN MARKA, PLURALEAN	→
	↓			DUT	→					IHINTZ	
				LIHO HONDAKIN, ALEZTA	↓			XIITA	→		
MUNDU OSOAN ZABALDUTA DAGOEN SAREEN SARE	↓	ATSEGIN, FIN	→					XEDEA, BURUA	↓		BASO
	↓										↓
ARTSENKOA	→			LASAITU	→						
UEAKOA				DUT, GIPUZKOAN	↓					IRRIKA, GOGO BIZI	→
	↓									BILO	
				ARTILEA EGITEN DUENA	→						
				ZAREN HORI	↓						HIDROGENOA
ARRANTZA- APARAILUA	→					NAHASTE- BORRASTEA	→				MUSIKA NOTA
KOBAZULOA, HARPEA	↓					OXIGENOA	↓				↓
								EZINEZKO	→		

	A	T						S
U	D	A	R	E			A	P
	A	M	E	T			A	N
A	R	A	N	A			I	R
K	B	B	B			M	O	R
K	A	L	I			D	A	K
		A	D	E		I	X	I
I	N	T	E	R	N	E	M	I
A	S	B	A			R	E	T
U	F	A	D	A		I	L	A
	T	R	E	T	Z	A	S	A
H	A	I	T	Z	U	L	O	A

Ezpalak

JON TORNER

ARGIAren multimedia ekoizpenak Creative Commons lizentziarekin



CREATIVE COMMONS BY-SA lizentziarekin jarri ditu ARGIAk Multimedia kanalean (www.argia.com/multimedia) sortutako eduki guztiak. Lan hauek kopiatu, banatu, lan eratorriak sortu eta jendaurrean hedatu daitezke.

ke, beti ere lizentzia honen izaera onartu eta lanaren egiletza aitortuz gero.

ARGIAk bat egiten du CC-BY-SA lizentzia molde honen balore nagusiekin. Partekatzea jotzen du kulturaren iturri eta balio ederrenetako gisa eta ARGIArentzat bere informazio eta sorkuntzaren zabalkunde libre funtsezkoa da. Era honetan, zenbat eta jende gehiagorengana heldu, hobe.

Lizentzia hauei buruz gehiago jakin nahi duenak, 2008ko azaroan Lawrence Lessig Creative Commons lizentzien sortzaile eta bultzatzailea elkarrizketatu zuen Elisabeth Pombok ARGIArekin. Beste gauza askoren artean dio hizkuntza txiki batek har dezakeen biderik onena dela, bai hizkuntza zabaldu eta baita indartzeko ere.

Bide hau *Hitzetik Hitzera* bideo saioarekin hasi zuen ARGIAk, aurreko astean blogak (www.argia.com/blogak) jarri genituen CC-BY-SA lizentziarekin eta orain multimedia kanalaren txanda da.

ARGIA bezalako aldizkari batentzat, egile eskubideak gai korapilatsua dira, lan-taldeko kazetariak sortzen ez duten informazioa publikatzen baita, argazkilarik askoren lanak... Edozein modutan, ARGIAri dagozkion eduki guztiak lizentzia honen pean egongo dira etorkizun hurbilean.

Valentin Redin Flamarique, Nafarroako antzerkigintzan erreferente izandakoa hil da, 66 urterekin. Antzerki autore eta zuzendariak berrikuntza ekarri zuen 70eko hamarkadan, El Lebril Blanco konpainiaren eskutik. Kritika eta publikoa alde izan zituen eta garaiko aktorerik onenen egin zuen lan. Bere obra nabarmenetakoa *Navarra, sola o con leche* izenekoa da, 125 emanaldi iraun zituen.

Igor Estankonak, Josune Muñozek eta Edorta Jimenezek *Desira plazer, 68-08. Euskal poesia erotikoaren antologia* (Txalaparta) plazaratu dute. Liburuak Miranderen *Oianonetik* hasi (1968) eta ordena kronologikoan biltzen ditu 40 urtetan 70 idazle inguruk egindako lanak, Karmele Igartuaren *Malekoia* poemarekin amaituz.



Zutagu.net aurkeztu du Elurnet enpresak, eza-gutza partekatzea helburu duen sare soziala. Gorka Julio Elurnet enpresako kidearen hitzetan, "goi mailako ikasketak dituzten pertsonak, gai batean lanean diharduten profesionalak edo aisi moduan gai baten inguruan interesa duten pertsonen baliabideak eskaini nahi dizkio sare sozial berri honek".

Bunpada Sound talde bizkaitarrak lehen lana kaleratu du, Anitzak Hitzak (Babel msk/Radiation). Rapa dute oinarri, baina reggae, flamenko, folk edota rock ukituak ere atzeman daitezke hamar abestiz osatutako diskoan.

● **Jose Ignazio Ansorena txistulariak Garan:** «Ustedut batez ere txistularia eta pailazoa naizela. Baina badakigu euskal tradizioan musikariak denetarik egiten duela, aguazil izatetik kanpaigile izateraino. Niri ordea ondo datorkit, txistularia izateko pailazo samarra izan beharra dagoelako. Eta alderantziz, musika herrikoia ezagutzeak zoragarri datorkio pailazoari. (...) Mundu osoan nagusi den txapelkeriak umeen eremura kondenatu nahi du pailazoaren figura, pailazoa beti figura subertsiboa izan denean, guztiak zirikatzen dituen, bereziki boteretsuak».

● **Jorge Gimenez Bech Euskal Editoreen Elkarteak lehendakariak Diario Vascon:** «Jaurkitzearen laguntza gehien-gehienez ere edizio kostuen %70 betetzera hel daiteke. (...) Baliteke arriskua txikiagoa izatea alde horretatik euskaraz argitaratuz gaztelaniaz argitaratuz baino, baina ez da zero. Kontuan izan behar da gaztelaniazko editoreek komunitate izugarri handi batentzat argitaratzen dutela. Gurean 800.000ko zifra mitiko hori erabiltzen da, baina literaturako liburua argitaratzen dugunok badakigu gure merkatu potentziala ez dela 10.000 erosletik gorakoa».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Behingoz protagonista

Secundarios vascos de primera. Carlos Roldán Larreta.
Euskadiko Filategia Fundazioa. 2008-2009

ALFONBRA GORRIA zapaltzen duten Oscardunak, pantaila handian minutu gehien betetzen dituzten aurpegi famatuak, ez dira askotan zeluloideko izarrik distiratsuenak. Nola ez gogoratu Iñake Irastorza, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filmeko amona suahiliaren paperean? Ane Gabarain *Jaun ta jabeko* Garbi maitagarri bezain despistatua? Pako Sagarzazu *Aupa Etxebeste!* laneko aitona xelebrea? Kontxu Odriozola *Goen-kaleko* Maria Luisa ordezkazina? Kandiko Uranga *Kalabaça tripontziako* —eta zinemako— ahotsik sakonena?

Aipatutako horiei eta beste 16 euskal aktoreri omenaldi txukuna eskaini die Roldán Larretak, kaleratu dituen hiru bildumetan —laugarrena buruan du jada—, bakoitzaren ibilbidea azalduz eta elkarriketa bana gehituz. Izan ere, benetako protagonistak eurak dira maiz, kontakizunari indarra ematen diotenak, istorioko pertsonaia nagusiari itzal egiteraino. Esperientzia ugari jaso ditu liburuak aktoreon ahotik: Jose Ramon Soroizek —edo *Super Arizko*, EAEk izan duen lehen-dakari dibertigarrienak— dio Elena Irureta eta bera izatezko bikote direla pantailan, testurik gabe ere moldatuko lirakeela eszena errodutzen batera jarritz gero; Elena Iruretak berriz, kontatzen du ez duela Daniel Calparsoro zuzendariarekin berriz lan egingo; Mikel Garmendiari gustatu izango zitzaiokeen paper dramatikoagoetarako deitu izan baliote; Mariví Bilbaok *A ciegasen* antzezturiko ama “gorrotagarria” du gustuko, zineman zital izateak duen erakargarritasunagatik; euskara batuan errodatzearen mugak hizpide ditu Klara Badiolak...

Askorako ematen du bigarren planoan daudenen eskarmentuak. “Ez da rolik mespretxatu behar, txikia izan arren. Baina nire paper handia oraindik iristeke dagoela pentsatzea ondo dago”, dio Ramon Agirrek. Azken finean, Kontxu Odriozolak azaldu moduan, “pantaila handian zure lehen plano bat ikustea baino magia handiagorik ez dago. Barren-barrenean, hori da gu guztion desira”. Bada, ahalegintzen jarrai dezatela, hainbatek eskertu egiten baitugu berez distira egiten duten aktoreen lana, hainbeste izarren artean. ■



NAFARROAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA

10

www.nafarroakotxapelketa.com



Azken-laurdenak:

Urtarrilaren 31n

AGOITZen

Kultur Etxean

17:30ean

Ander Fuentes “Itturri”

Miel Mari Elozegi “Luze”

Saioa Alkaiza

Diego Riaño

Oskar Estanga

Jose Luis Barbeira “Zili”

Nafarroako

Bertsolaria

Elkartea



Laguntzailea:



argia

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURA

Haitiko lurrikara ezin saihestu

HAITIKO LURRIKARAK kalte izugarria eragin zuen Port-au-Prince hiriburuan, epizentroa handik hamabost kilometrora izan zelako. Lurrikaren tamaina erregistratzen duten zentroak bat etorri dira Richter eskalan 7 inguruko indarra izan zuela lurrikarak.

Epizentroa hiriburutik hurbil izateaz gain, badago beste faktore garrantzitsu bat sortutako sarraskia hobeto ulertzeko: lurrikara hamar kilometroko sakonera txikian gertatu zen. Zenbat eta sakonera handiagoa, orduan eta eragin txikiagoa izaten da lurrazalean. Edonola ere, erne ibili beharra dago oraindik aste batzuetan, gerta daitezkeen errepikak oso bortitzak izan baitaitezke.

Orain arte Haitin gertatu lurrikara eza-gun handienak 1618. eta 1860. urteen artean izan badira ere, Haiti Ipar Amerika eta Hego Amerika bereizten dituen failaren gainean dago eta alditik aldira ezinezkoa izango da lurrikarak saihestea.



JOHNIBIL.WORDPRESS.COM

Liburu baten egoera usain bidez jakin daiteke

ORAIN ARTE liburu zaharren egoera ezagutzeko egin behar izan diren probek kalteak egin diezaiokeke liburuei. Londreseko University College-ko Matija Strlic-ek, berriz, liburu zaharrek usain bereziak dituztela konturatuta, bide horretatik ekin zion ikerketari. Usaina chunka konposatu organiko hegalarik (KOH) sortzen dute, eta horien konposizioaren arabera, liburuaren egoera bata edo bestea izan daiteke. Arestian esan bezala, orain arte erabilitako metodo gehienek paper puskek mozterea behartzen zuten, eta horrek, noski, kalte egiten dio liburuari. Aldiz, orain Strlicen lantaldea probatzen ari den metodoak liburuak askatutako gasak aztertzen ditu, liburuak ukitu gabe.

Egindako probek emaitza ona izan dutenez, teknika horrek antzinako beste objektu batzuk aztertzeko balioko duen aztertzen ari dira.



WWW.SAMELGATO.COM

Minbiziaren aurkako ikerketan datu berriak

Zientzialariek aspalditik dakite p53 geneak minbizia eragozten duela. Baina batzuetan, mutazio baten eraginez, geneak bere ahalmena galdu eta minbizi-zelulak ugaltzen hasten dira. Orain, ikerlariek mutazio horri aurre egiteko modu bat aurkitu dute, ondoko artikuluan azaltzen denez.

<http://ttiki.com/9355> (Gaztelaniaz)

Gure galaxiako izarrik beroenetakoa topatu dute

Manchester-eko Unibertsitateko (Britainia Handia) astrofisika zentroko ikerlari talde batek 200.000° C-ko tenperatura duen, hau da, eguzkia baino 35 aldiz beroagoa den izarra aurkitu dute.

<http://ttiki.com/9356> (Gaztelaniaz)

Berekoienak errazago du bizirautea?

Ustez, gizakiak, edozein animalia bezala, zenbat eta berekoia izan gero eta aukera gehiago ditu bizirauteko. Hori zen orain arte pentsatzen zena, baina badi-rudi gauzak aldatzen ari direla: eskuzabalak izateko programatuta omen gaude.

<http://ttiki.com/9357> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Literaturaren kiratsa

OGIA, berdin da zuria, gorria, beltza edo otasa baldin bada... ogia ogi bada loratu egiten da. Jan gabe geratzearen geratzeaz, eguna joan eta astea etorri, ogia lizurdira eta lizunak josten dion soineko harro urdina da lorea. Gustukoak ditut nik loratzen direnak, lagunak bezala ogiak, gogor xamartuak izatea... letaginak zorroztu behar. Gaztarena, jogurtarena, fruta dultzearena, erreximentarena, lizun guztien eran, lore hau osasunerako oso ona izango denaren susmoa dut... Barrunbeetan daramatzagun mikroorganismo ugarien tankeran digestio-lagungarri ote da? Izan ere, non da ona eta txarraren arteko muga? Adibidez, noiz da ardoa ozpin edo sagardoa zurminda edo burutazioa teia edo kazetariaren luma herdoildua edo mutilzaharra mutxitua edo emakumea mutxurdira edota gogoa irritsa?

Lore honek usainik ba ote du? Kiratsa bail, dio aldamenekoak... Lizun-usaina, zoko-kiratsa, lizunsunda, kerua, laspel mergatza. Izen aberastasunak

lizuna etxekoa dugula adierazten du. Eta horri ere etekina atera. Aurreko orrialdean Joxerra Aizpuruak azaldu dizuen bezala, American Chemical Society-ren *Analytical Chemistry* agerkarian Matija Strlic-ek eta lankideek diotenez, dokumentu eta liburu zaharren kontserbazio egoera zehatza eza gutzeko usain-kode bat asmatu dute. Osagai organiko lurrinkorrak identifikatu dituzte, paperak eraso dituzten onddoek garatutako lizunen usainak moldatzen dituztenak. Osagaiok sortzeko bide ugari dago eta zein lurrin-nahasketa azaltzen den arabera paper-etxeak, tintak, azalaren gaiak, joskitzako lokarriak eta liburuen atalek daramaten urdintze eta usteltze bidearen nondik norakoa eza-gutu daiteke. Orain arte puska bat moztu, kendu eta ohiko baliabideetatik barrena laborategietan aztertzen ziren paperak, usainen bitartez ikertu, ikuskatu, usainkatuko dituzte aurrerantz. Edorta Jimenezen sudurra gogaitu duen euskal liburuen kirats-lurrinari antzik emango ote diote?

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Iraila aldean lagun batek bere baratzean erakutsi zidan niretzat landare arraro samarra, besteren batek emana. Berak "tomatina" deitzen dio, eta jan egiten du. Baina niretzat ez dauka zer ikusirik tomatearekin. Fruituak bai, gorriak eta *cherri* tomatearen antzekoak ditu. Garaieran ia bi metro. Enborra behatz baten lodierakoa eta tomatearena baino egurtsuagoa da. Arantzak ere baditu, zentimetro bat ingurukoak, zapalak eta punta zorrotzekoak. Aleak, goitik behera txortan edukitzen ditu, baina ez tortoan. Ezker-eskuin, ilaran hamar bat ale. Hazia tomatearena bezalakoa da, baina askoz ere gehiago ditu. Neguan galdu egiten da baina udaberrian berriz behetik sortzen da. Ez dakit deskribapen honekin nahikoa izango duzun zer motako landarea den eta haren fruituak jangarriak diren esateko. Aldez aurretik eskerrik asko.

Juan Ramon Aranguren (Antzuola).

Kaixo Juan Ramon. Nire ustez, deskribatzen duzun hori "tamarilloa" da. Hori da komertzialki duen izena 1970ean Zeelanda Berrian adoptatu eta zabaltzen hasi zirenetik. Patata, piperra, alberginia eta tomatearen familia amerikarrekoa da, *Solanaceae*. Izen zientifikoari dagokionez, *Solanum betaceum* da zabalduena baina



Tamarilloa, *Solanum betaceum*.

ondorengo sinonimo guzti hauei lotua ere topatuko duzu: *Cyphomandra betacea*, *Solanum crassifolium*, *Pionandra betacea*, *Cyphomandra procera*, *Solanum insigne*, *Cyphomandra crassifolia* eta *Cyphomandra hartwegi*. Berari buruzko gorabeherak, besteak beste, ttiki.com/9398 web orrian topatuko dituzu, txukun asko azalduta. Lasai, jateko ona da, baina familia honetako kide guztiek bezala baditu alkaloide petral samar batzuk, bateren bati mesede baino kalte gehiago egin diezaiokeela, alegia... On dagizuela.

JANEK-CC BY SA

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Lavoisierri, esker onez

WWW.WIKIMEDIA.ORG

PARIS, 1794KO MAIATZAREN 8A. Frantziako Iraultzako Izualdi betean, garaiko zientzialaririk bikainenetakoa exekutatu zuten.

Antoine-Laurent Lavoisier (1743-1794) kimika modernoaren aita da. Hidrogenoa eta oxigenoa identifikatu eta izendatu zituen, atal honetan jaso genuen moduan (ARGIA, 2201. zenbakia) flogistoaren teoria bertan behera utzi zuen, sistema metrikoaren teoria osatzen lagundu zuen, errektuntza metodo eraginkorrak asmatu zituen...

Baina garai kaotikoa izan zen harena, zientziaren garapenerako desagokoa. 1794an Frantziako Iraultzako buruek Zientziaren Akademia ixtea erabaki zuten eta Lavoisier jomugan izan zuten berehala. Kutsu aristokratikoa omen zuen kimikariak, noblezia titulurik eta ondasunik izan ez arren; bere lanek emandako ospea baino ez zuen. Lavoisierrek hainbat zientzialariren alde jardun zuen eta horietako batzuk gillotinatik salbatzea lortu zuen, esaterako Joseph Louis Lagrange matematikari, fisikari eta astronomoa.

Bere burua, aldiz, ezin izan zuen salbatu. 1794an, Izuaren erregimena indarrean zela, Jean-Paul Marat buruzagi iraultzaileak berak



Antoine Lavoisier eta emaztea 1788an, Frantziako Iraultza piztu baino urtebete lehenago.

zuzenean akusatu zuen, beste 27 intelektualekin batera. Karguak absurduak ziren, besteak beste tabakoa adulteratzea, baina horren atzean mendeku pertsonala zegoen. Urte batzuk lehenago, Maratek asmakizun bat aurkeztu zuen, eta Lavoisierrek baztertu eta erridikulutzat jo zuen.

Heriotza zigorra jaso zutenean, kimikariak azken gutuna idatzi zuen, barkamen eske, bere ikerketa lanen garrantzia eta lan horiek amaitzeko beharra argudiatuz. Epaile iraultzailearen argudioa eskasagoa baina irmoagoa izan zen: "Errepublikak ez du zientzialaririk eta kimikaririk behar, justiziaren bidea ezin da eten".

Frantzia iraultzailea esker txarrekoa izan zen zientzialari handiarekin, baina hil ondoren ere herrikideek ez zuten interes handirik izan Lavoisier omentzeko. Metalezko estatua bat baino ez zuten egin haren omenez, eta beste pertsonaia baten burua ipini zioten gainera, eskultoreak ez omen zuelako Lavoisierren aurpegiera kopiatzeko denborarik. Estatua bakan hura Bigarren Mundu Gerran balak egiteko funditu zuten, seguruenik hori egiteko Lavoisierren ikerketa lanak funtsezkoak izan zirela jakin gabe.

Arrastoak

Van Goghen gutun bat jaso nahi duzu?

WWW.VANGOGHLETTERS.ORG webgunean Vincent Van Goghek (1853-1890) idatzitako 900 gutun inguru jaso dituzte. Artista ezagunak nederlanderaz eta frantsesez idatzi zituen eskutitzok, baina webgan ingelesezko itzulpena ere ipini dute eskura. Gutunak garai horretan Van Gogh margotzen ari zen lanekin lotu

dituzte; hala, bere obrak osatzen ari zela buruan zer zebilkion jakin daiteke. Bilatzaileak gutunak kronologia, kokapen geografikoa edo eskutitza jaso zuen pertsonaren arabera aurkitzea ahalbidetzen du. Kronologia zehatzak, bibliografiak, glosario batek eta dokumentazio oparoak osatzen dute webgunea.



WWW.POSITIVEPSYCHOLOGYNEWS.COM



ATEZ ATEKO HONDAKIN BILKETA

Gipuzkoan, Katalunian, Italian... Kolore askotako sistema

Goiko irudia Italiako Rifiuti aldizkariko azalean atera da, baina berdin izan zitekeen Usurbilen sortua. Atez ateko zabor bilketak ez baitauka patenterik, mundu osoan barrena egiten da eta kamaleoi baten modura aldatuz doa, leku adina kolore, birziklatze tasa harrigarriak eraginez. Aurki hasiko dira Hernanin eta Oiartzunen hondakinak modu honetara biltzen.

URKO APAOLAZA

HERNANIN ETA OIARTZUNEN ez da zabor kontenedorerik ikusiko laster kalean, Usurbilen iaz egin bezala, hondakinak atez ate biltzen hasiko baitira bi udalerriotan. Prozesua oso aurreraturik dago eta bilketa sistema berriak izango dituen zutabe nagusiak erabakita dituzte dagoeneko: egutegia, ordutegiak, tasak...

Oiartzungo kasuan arreta berezia jarri diote autokonposta bultzatzeari, udalerraren auzoetako urbanizazioa dela-eta emaitza bikainak ateratzea espero baitute; dagoeneko 260 familiak eman dute izena konposta etxean egiteko. Hernanin, herritar eta merkatariekin azkeneko bilerak egin ostean, etxe atari bakoitzean honda-

kinak nola bilduko diren definitzen ari dira orain, eta laster emango du jakitera Udalak bere proposamena. Gainera, hasi dira sistema martxan jartzeko materiala erosten eta dena ondo bidean, udaberrirako hondakinak modu horretan kudeatzea espero dute. Hala ere, prozesua jadanik hasia da lehen emaitzak erakusten:



Ezkerreko irudian, Usurbilgo langile bat hondakin organikoa biltzen. Eskuinekoan, Hernaniko atez atekoaren parte-hartze prozesuko plenarioan (ezker-eskuin): Jordi Colomer, Izaskun Txintxurreta, Olatz Urrutibeaskoa, Marian Beitalarrangoitia eta Nicola Foroni.

inoiz baino gehiago hitz egiten da kalean eta herritarren artean sortzen dugun zaborraz eta birziklatzeaz.

Usurbilgo “erara”

Oiartzuarek eta hernaniarrek hila-beteak daramatzate hondakinez eztabaidan eta bide luzea egin dute gai hori jorratzen. Dena den, bidea erosoago egin zaie Usurbilen aurretik urratu dutelako. Hona herri hartako goiz arrunt bat:

Goizeko 9:00ak inguruan Usurbilgo zentroko kaleetan operarioak alde batetik bestera dabiltza hondakin organikoaren kubo txikiak banan-banan husten: “Organikoarekin normalean ez da batere problemarik izaten, plastikoekin jendea gehiago liatzen da” dio horietako batek. Ordu gutxi batzuk geroago ez da kalean zaborrik ikusten, eta kontenedoreek aspaldi utzi zioten paisaia itsusteari. Usurbilen 2009ko martxotik biltzen dituzte hondakinak atez ate eta emaitza ikusgarriak lortu dituzte: %23a birziklatzetik %82a birziklatzera pasatu dira. Hala ere, atez atekoa jarri zenetik sistemaren egokitasuna zalantzan jarri izan du zenbaitek, batez ere *basura turismorari* dagokionez; baina duela gutxi Udalak egindako inkesta baten arabera ehuneko oso txiki batek (%6,5) eramaten du maiztasunez zaborra inguruko herrietara, eta aldiz, herri-

tarren %76,8 “ongi” edo “oso ongi” moldatzen da atez atekoarekin.

Euskal Herrian Usurbilgo “erara” egin da ezagun atez ateko hondakin bilketa sistema, baina ez da berria gurean, Iparraldeko herri batzuetan jada biltzen baitira atez ate hainbat gai—plastikoak batez ere—. Hondakinak jatorrian separatzen aspaldi hasi ziren munduko hamaika bazterretan, deitu *door-to-door*, *porte-à-porte*, edo *porta a porta*. Kolore askotako atez atekoak daude, printzipio nagusi batek gidatzen dituelako: lekuan lekura moldatu beharra. Horretarako ezinbestekoa da erakundeen eta herritarren arteko elkarlana eta informazio trukaketa.

Salernon ere “mobida” gunea

Hernanin atez atekoa martxan jartzeko bilera eta plenarioetan 1.120 lagun ibili dira—19.000 biztanletik—eta 45 pertsonako jarraipen batzordea sortu dute. Usurbilen parte hartze tasa dezente handiagoa izan zen arren, Izaskun Txintxurreta Herna-

niko Ingurumen zinegotziaren ustez datuok ezin dira inolaz ere frakaso gisa hartu: “Nicola Foronik—parte hartze prozesuetan aditua eta Hernanikoaren dinamizatzailea—esan digunez jendea ez dago ohituta eta lortutako zenbakiak oso garrantzitsuak dira”. Bilerak zonaldeka (herrigunea, auzoak, landagunea...) eta sektoreka (merkatari, sagardogile, jubilatu, udal langile...) antolatu dira. Horietan, atez atekoari buruzko nozio orokorreaz gain, adibide praktikoen bidez herritarrei erakutsi diete hondakinak ondo bananduz gero erreusa noraino murriztu daitekeen. Horrez gain, gune edo sektore bakoitzarekin zerikusia duten zalantzak eta proposamenak azaleratu dira bileretan. Esaterako, Hernani txotx garaian murgildurik dago jada: nola egin bateragarri herri kaxkoan asteburuetan izaten den jendetza eta portal ondoan hondakinak uztea? Atez atekoa jarri den munduko beste herrietan ere antzerako zalantza eta beldurrak sortu izan dira; eta kasu askotan haiek bilatutako soluzioei begiratzea besterik ez dago.

Italiako Salerno hiria, askoz handiagoa bada ere (140.000 biztanle), Hernanirekin konparatu dezakegu nolabait. Salerno Napolitik 50 kilometrorra dago eta hiri turistikoa da oso, bertikala eta dentsitate handi-

**Erraustearen aurkakoentzat,
Hernanin atez atekoa
jartzeak demostratuko du
posible dela eredua Gipuzkoa
osora zabaltzea**



Atez ateko hondakin bilketa egiten den Europako hainbat lekutako kartelak (ezker-eskuin): Erromako Ciampino auzoko atez atekoaren logoa; Italiako Novaran herritarrei eskerrak ematen %68a birziklatzeagatik; Ingalaterrako *doorstep* atez atekoaren kartela; atez atekoa Italiako Ancona herrian; eta Frantziako Miribel et du Plateuko aldiakaria atez atekoarekin hasiko direla esanez.

koa. CONAI birziklatze kontsortzioarekin elkarlanean atez atekoa jarri zuten hainbat auzotan 2008ko apirilean. Geroztik, sistema hiri guztira zabaldu da (57.000 etxebizitza eta 8.000 enpresa) eta %72ko birziklatze tasa lortu dute. 2009an *Eco-mondo* nazioarteko saria eman diote hiriari, egindako lanagatik. Bada, Salernon ere arazoak dituzte *Zona Movida* deituriko merkataritza eta ostalaritza gunean eta horri aurre egiteko ordutegi eta egutegi bereziak prestatu dituzte gune horretarako, herritarren kooperazioa bultzatuz. Hain zuzen, halakoxe zerbait proposatuko dute Hernanin, festa garai berezietan ordutegia aldatzea arazok saiheste aldera.

Hernani estrategikoa

Aztiker enpresak egindako ikerketa baten arabera, hernalarren kezka nagusienak usain txarrekin eta garbitasunarekin lotuta daude, eta horrez gain, galdetutako askok zalantzak agertu dituzte ea Hernani bezalako "herri handi batean" posible ote den atez atekoa jartzea. Hernanin Zero Zabor (HZZ) taldeak baina, ez du zalantzarik: "Izan herri txiki edo herri handietan", atez atekoa mundu osoan erabiltzen

da. Hondakinen kudeaketa burutsu baten alde egiten du lan HZZk eta ahalegintzen ari da atez atekoaren abantailak erakusten. Horren arira, munduko zenbait hiritako adibideak aipatu dituzte, horien artean Niort (60.000 bizt.) dago.

Frantziako hiri hau aitzindaria izan zen hondakinen kudeaketan 90eko hamarkadan eta lehenengotakoa atez ateko sistema jartzen, *Colvert* izenez bataiatu zuten operazioaren bidez. Gaur egun ere holaxe jarraitzen du: astean behin biltzen dituzte hondakin organikoak atez ate, 120 litroko edukiontzietan. Niorten erraustegi bat jartzeko proiektua zegoen, baina herritarrez osatutako

kolektiboen oposizioa aurkitu zuen parean. Azkenean, 2005ean bertan behera geratu zen proiektua, besteak beste, zabor kopuru txikia erraustea justifikaezina zelako.

Hernanin atez atekoa jartzea estrategikoa da errausketaren kontra daudenentzat. Izan ere, horrek demostratu lezake Gipuzkoako urbanizazio konplexuan ere posible dela sistema hori aurrera eramatea eta alternatiba dela Zubietako plantaren aldean. Debagoienako mankomunitateko herriak ere aztertzen ari dira atez atekoa jartzea eta Usurbilen herri bat baino gehiagotako ordezkariak izan dira bilketa nola egiten den bertatik bertara ikusteko. Sistemaren hedapen hori beste herrialdeetan ere gertatu izan da, Herrialde Katalanetan, esaterako, hamarnaka dira dagoeneko, eta Ingalaterran zabaltzen ari dira birziklatzeko hondakinak etxean jasotzeko *doorstep* izeneko zerbitzu publiko eta pribatuak.

Ingalaterran eta Italian

Ingelesak lotsatuta daude euren birziklatze tasarekin, Europar Batasunean azkenetako postuan egon baitira urte luzez. EBren birziklatzeari buruzko zuzentarauak bete-

Atez atekoa, zer da?

- Norberak etxean separatzen ditu hondakinak eta hondakin mota bakoitza etxe atarian jasotzen da: organikoa, ontzi-plastikoak, papera-kartoia eta erreusa.
- Egutegi eta ordu zehatz batzuk daude hondakin mota bakoitza etxe atarira ateratzeko.
- Kontenedorerik, normalean, ez da izaten kalean, birziklatu gabeko zaborrak ihesbiderik izan ez dezan.
- Hondakinak "pertsonalizatu" egiten dira eta herriar bakoitzak sortzen duen hondakinen ardura hartzen du, birziklapen tasa asko igoz.



NAPOLI

“Kontenedoreak agur esaten dizue!” dio ASIA Napoli enpresak jarritako kartelak. 2008ko uztailan atez atekoa dela-eta kendu egin zuten.

tzeko asmoz 2003an zaborren lege berria onartu zuen Parlamentuak eta horren arabera 2010 urterako herri-tar guztiei gutxienez bi hondakin mota etxetik bertatik jasotzeko zerbitzua eskaini beharko litzaieke.

Friends of the Earth elkartearen arabera hondakinak jatorrian separatzeari da gehiago birziklatzeko modurik eraginkorrena, baina oraindik asko dago hobetzeko *doorstep* zerbitzuetan eta aholku batzuk eman ditu: etxebizitza askotako eraikinetan neurriak hartzea bilketa ondo egiteko, ahalik eta gai ezberdin gehien biltzea, bilketa egunak zabaltzea, informazioa eskaintzea... Gisa honetan, zenbait lekutan lortu dute birziklatze tasa asko igotzea. Esaterako, Daventry-n (22.000 bizt.) 1999an etxebizitza guztiei eskaintzen zieten zerbitzu hori eta gaur egun Ingalaterrako birziklatze tasa altuenetakoa du; 2008ko abenduko inkesta baten arabera herriarren %81 gustora zegoen hondakin bilketarekin.

Dena den, italiarrak izan dira aitzindari Katalunian eta Euskal Herrian ezagutzen dugun atez atekoan. Monza hiriko *Scuola Agraria* hasi ziren lehenik, 1980ko hamarkadan, hirietako parkeetan zaborra nola gutxitu ikertzen. Pixkanaka eskola hori erreferente bilakatu zen konpostaren eta hondakinen bilketaren arloan, eta egun, munduan

ezaguna da Enzo Favoino eta Marco Ricci irakasleei esker. Bada, atez ateko bilketa azkar zabaldu zen Italiako hainbat hiritara 1993tik hasita, Monza edo Novara kasu, eta 1.800 herri baino gehiagotan erabiltzen da sistema hori daborduko, guztira 18 milioi lagunetik gora zerbitzatuz, %70eko birziklapen tasarekin. Adierazgarria da *La Repubblica* egunkarian Ettore Livinik Italiako zaborrei buruz idatzitako artikulua: *Bilketa (in)diferentziatua: birziklatzen ez duen herrialdea*. Kasetariak egin erradiografian Milan edo Salerno bezalako hiriak goraiatzaren ditu, baina kontrara, gogorarazten du Erroman edota Italiako hegoaldean birziklapenak apenas gaintzen duela %10a.

Campania eskualdean, adibidez, 1994an piztu zen *Emergenza Rifiuti* deitu zaiona eta zaborrekin zer egin ez dakitela egon dira denbora askoan, 2008ko Napoliko irudi tamalgarriak ikusi arte. Ematen du hiri horretan gauzak hasi direla nolabait bideratzen eta alternatiba bezala atez

Atez ateko eredua Italiako 1.800 herri baino gehiagotan jarri da jadanik, guztira 18 milioi lagunetik gora zerbitzatuz

ateko bilketa hartu dute auzo batzuetan. 20.000 biztanle dituen Colli Aminei auzoan hasi ziren lehenik eta zerbitzuak ateratako nota 7,11 izan da herritarrei galdetu dietenean. Galdetaren erantzunek agerian utzi dute, hala ere, asko dagoela oraindik hobetzeko: espazio falta, ASIA hondakin kudeaketa enpresarekiko konfiantza eza... eta abar.

Erreferendumak

Izaskun Txintxurreta Hernaniko zinegotziak garbi dio: “Hondakinek ez dute kolorerik”. Hala ere, ematen du Gipuzkoako kasuan ez dela horrela eta Mankomunitate nahiz udaletako kolore politikoaren arabera ari direla aukeratzen bilketa eredu bat edo bestea. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak zaborren errausketa hartu du soluzio final gisa. Aldiz, atez atekoa bultzatzeko arrazoi nagusietako bat da erraustegirik ez eraikitzea. Ideia kontrajarri horiek erakundeen arteko tira-bira ugari sortu dute. Esaterako, Usurbilen egitekoa duten konpost planta geldirik dago uneotan, Partzuergoak proiektua epaitegieta-raman duelako.

Kataluniako *Porta a Porta* udalerrien elkarteak ezinbesteko jotzen du kontsentsu politikoa atez atekoa aurrera eramateko: “Interes partidista duen edozein ‘gera politiko’, modu baketsuan eta zentzudunean kontrarrestatu behar da” dio elkarteak bere manulean. Vilassar de Marren ondo dakite hori; udal gobernua eskuz aldatzean atez atekoa kendu baitzuten. Hala ere, Jordi Colomer orduko udal ingurumen teknikariaren hitzetan ez da egia gobernua galdu zutela atez atekoa jarri zelako: “Politika hori baino konplexuagoa da” esan du prentsara bidalitako oharrean. Colomer San Markos Mankomunitateko teknikari aholkularia da egun, eta azaldu duenez Herrialde Katalanetan atez ateko bilketa sistema jarri den herri guztietatik bitan baizik ez zaio eman kutsu politikoa gaiari: “errealitateak erakusten du, Katalunian kolore guztietako atez atekoak daudela”.

Usurbilen alderdi bakarraren oposizioarekin jarri zen atez atekoa. Ondoren, herritar talde bat eredu horren kontra azaldu da, sinadurak

Zubietako errauste plantarekin zer?

HERNANIKO KRONIKA

Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak Zubietako gainetan egin nahi duten zabor errauste planta aurrera doa. Erraustegiak 400 milioi euro kostako du eta 213.00 tona zabor erreko dituela kalkulatzeko dute sustatzaileek. Jadanik hasi dira eraikina egiteko zundaketekin, zuloak ireki eta bideak zabalduz. Gipuzkoako Erraustearen Kontrako Plataformen Koordinatortik ARGIAri jakinarazi diotenez prozesua oso azkar doa eta horretarako erabilitako terrenoetako –34 hektarea– behin behineko enbargoak martxoan amaituko dira. Ondoren behin betiko espropiazioekin hasiko lirateke eta sustatzaileek urte honen lehen zatian nahiko lukete obrekina hasi.

Hala ere, oraindik epaitegietan hainbat kontu dago erabakitzeko. Horrez gain, herritarrek jarritako 2.000 helegitetik gora jaso ditu proiektuak eta horiek ere argitu beharko dira, besteak beste, kokapenari dagokionez eta Europar Batasuneko erakundeek hondakinen gaiak hartutako erabakien buruz.

Greenpeace kontra

Erraustetarekin txosten esanguratsua plazaratu zuen Greenpeace erakundeak joan den urte amaieran: *Incineración de residuos: malos humos para el clima*. Espainiako erraustegien azterketa egiten du eta dio hondakinak erraustea klimarentzat oso kaltegarria dela: erraustegiek Espainiako eta Euskal Herriko CO₂aren %3 isurtzen dutela salatzen du. Horrez gain, erraustegiak “balorizazio planta” gisa ez hartzea eskatu du Greenpeacek: “Ezinezkoa da ezkutatzea instalazio hauen



Zubietako erraustegiaren kontrako pankarta Usurbilen.

errealitatea: aldaketa klimatikoa sortu eta errekurtsioak ezabatzen dituzten fabrikak dira”.

Txostenean dio enplegurako ere kaltegarriak direla erraustegiak, eta adibide bat ematen du: Zabalgargin 280.000 tona zabor erretzeko soilik 11 pertsona behar dira. Horregatik, Zubietakoa bezalako proiektuak albo batera utzi eta Usurbilen martxan jarri den atez ateko sistemari heldzea proposatzen du munduko erakunde ekologistak.

bildu eta erreferenduma ere eskatu dute. Erreferendum hori otsailaren 26 eta 27an egingo da eta Xabier Mikel Errekondo alkatearen esanetan Udalak atez ateko sistema “konfirmatzea” du helburu: “Hau da benetako unea, bestela, orain arteko lan guztia zakarrontzira joango da”. Galdeketa berme guztiekin eta giro lasaian egitea klabeak izango dira azken emaitzetan. Italiako Argelato herrian (9.000 bizt.), atez atekoa martxan jarri ondoren, aldeko eta kontrakoak gogor mobilizatu ziren. Birziklatze tasa %79ra igo zen, baina paradoxikoki, 2008an erreferendu-

ma egin zenean, sistema zaharrera itzultzeko aukerak irabazi zuen.

Garestia ala merkea?

Argelaton jendeak atez atekoaren kontra bozkatzeko arrazoietako bat izan zen “garestiegia” omen zela. Ekonomikoki begiratuta, Izaskun Txintxurretak azaldu du gutxi gora-behera tankeran geratzen dela kostua: “Biltzea garestiagoa da, batez ere pertsonalaren aldetik, baina birziklatutakotik ateratako diruarekin konpentsatu egiten da”. Baina zaborrak erraustea merkago ote da? Hain zuzen Katalunian eta mundu-

ko beste zenbait lekutan atez atekoa egiten hasi ziren erraustegiko tasak altuegiak zirelako udalentsat. Esaterako, Frantziako Alpeetako Miribel et du Plateau komunitatean (20.000 bizt.) iazko abenduaren 1etik hasi dira hondakinak jatorrian separatzen gehiago birziklatzeko; urtean 14.000 tona zabor sortzen da eta horiek erraustea “karga ekonomiko garrantzitsua da” bertako arduradunen esanetara. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, gaiari buruzko informazioa
eta loturak.

Harpidedun egin zaitez 44€
eta opari gisa liburu hauetako bat:

ARTE ESZENIKOEN ALDIZKARIA

ARTEZ

44€ (Bez eta bidalketa gastuak barne), 12 zenbaki (bat hileko) urte betez

Abantailak:

- %25 beherapena Artezblai Argitaletxeko liburuetan
- %5 beherapena Yorick liburudendan eros daitezkeen gainontzeko liburuetan

El autor y su sombra
Alfonso Sastre

Cuadernos esotéricos de San Francisco

Celena
Luis Mateo Díez
Fernando Urdiales

Tel: 944 795 287

www.artezblai.com

artez@artezblai.com

Valentziarrek TV3 ikusi nahi dute

2007ra arte, Valentzian, moldatu dira Kataluniako TV3 katalanezko telebista publikoa ikusteko. Aldiz, azken bi urtean errepikagailuak ixteari ekin dio Gobernuak. PPren Gobernuaren borondate eza ikusita katalanezko telebistarentzako lege babes bila hasi dira.

ONINTZA IRURETA

ACPV



Acció Cultural del País Valencià antolatutako manifestazio honetan, katalanez emititzen duten lau kateak (TV3, Canal 33, 3/24 eta 300) Valentzian ikusteko eskubidea aldarrikatu zuten. Valentziako Gobernuak hala nahi izanez gero, sistema digitalean lau kateak sartzeko tokia du.

DUELA GUTXI IZAN DA Euskal Herrian Acció Cultural del País Valencià elkarteko arduradun nagusi Toni Gisbert. Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Kontseiluarekin batera *Mugarik Gabeko Telebista* kanpaina aurkeztu dute. 500.000 sinadura bildu nahi dituzte, udaberrian Madrilgo Kongresura eramateko. Helburua oso sinplea da: katalanez, euskaraz eta galizieraz dauden irrati eta telebista publikoak hizkuntza horiek mintzatzen diren lurraldeetan ikus ahal izatea lege bermez. Hau da, valentziarrek inolako oztoporik gabe Katalunia-

ko TV3 ikus dezatela, nafarrek ETB eta Leongo El Bierzon Galiziako TVGA.

Toni Gisbertek azaldu dizkigu Herrialde Valentziarrean TV3 katea ikusteko urtetan izan dituzten gora-beherak. Hasteko, hizkuntza jakin bateko telebistak hizkuntza hori hitz egiten deneko lurraldean emititzeko eskubidea linbo legalean egon da, arautu gabe, alegia. 25 urte badi-ra Herrialde Valentziarrean errepikagailuak jartzen hasi zirela TV3 ikusi ahal izateko. 150.000 herritarrek jarri zuten dirua azpiegiturak bermatzeko. Valentziako Gober-

nuak bakean utzi du telebista ikusteko errepikagailu sarea 2007. urtera arte. Harrezkero administrazio espedienteak egiten ari da PPren Gobernua. Hiru errepikagailu itxiaz dituzte Gobernuak eta sarea abian jarri zuen elkarteak, Acció Cultural-ek, 700.000 euroko isunari egin behar dio aurre.

Multiplexean badago tokia

Bi urteko borrokan kontuan hartu dute Acció Culturalekoek Lurreko Telebista Digitala datorrela eta katalanezko telebistak eremu horretan izan behar duela tokia. Gobernuak

ETB Nafarroan

Nafarroan itzalaldi analogikoa egin da eta kate guztiak Lurreko Telebista Digitalaren bidez jasotzen dituzte, ETB1 eta ETB2 izan ezik (ETB3 ez da ikusten). Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ETBren bi kateak seinale analogikoz jaso daitezke oraindik, itzalaldi analogikoa egin gabe dagoelako. Apirilaren 3an ordea, Euskal Autonomia Erdigegoa ere seinale digitala baino ez da geratuko, eta beraz, ETB1 eta ETB2 ez dituzte ikusiko Nafarroan. Ikusteko dago Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza adostasunera iritsiko diren azpiegiturretan inbertitzeko. Joan den astean egin zuten bilera. Nafarroako Gobernuak esan du ez duela bere gain hartuko inbertsiorik. Eusko Jaurlaritza berriz, prest agertu da inbertsioaren erdia bere gain hartzeko. Kalkulatu dute azpiegiturek, hau da, bigarren multiple-

xa jartzeak zenbateko kostua izango duen: 1,5 milioi euro multiplexa jartzea eta urtean 993.000 euro seinalea zabaltzeko eta tresneria mantendu eta energiaz hornitzeko. Joan den asteko berria da Espainiako Industria Ministerioak Nafarroako Gobernuak eskatutako bigarren multiplexari baiezkua eman diola (lau katerentzako tokia legoke, beste kontu bat da Gobernuak zein lau aukeratuko lituzkeen).

Orain arte Nafarroako espektrorirradi-elektrokoari multiplex bat zegokion eta horri esker lau kate ikus daitezke. Lehentasuna Nafarroako kateek dute eta hala, Nafarroako lau kateekin beteta dago multiplex hori. ETB ikus ahal izateko bigarren multiplexa behar zen. Multiplexa lortuta, hurrengo pausoa Nafarroako Gobernua eta Eusko Jaurlaritza azpiegitura berria ordaintzeko akordiora iristea da.

adierazi du oztopo teknikoak daukela sistema digitalean telebista gehiago sartzeko eta hirugarren multiplexaren beharra aipatu du. Bi multiplex dituzte Herrialde Valentziarrean. Lehenengoaren bidez bost telebista kate ikus ditzakete eta ondoko hauek dauzkate: Canal 9 eta Punt 2 (autonomikoak) eta Popular TV eta Libertad Digital (pribatuak). Bosgarren bat, TVV 24 horas kate publikoa, probatan ari da. Bigarren multiplexa hutsa dago eta ez dirudi betetzeko intentzio handirik dagoenik. Gobernuak, nahi izanez gero, katalanez emititzen duten kate guztiak onar ditzake multiplex horretan. Kontua borondate politikoa da, ez zailtasun teknikoa.

Egoera horren aurrean zer egin? Acció Culturalek bi ekinbide jarri ditu abian. Batetik, herritarren presioaren bidez katalanezko kateak

ikusteko aukerak areagotzea. Dena dela, Toni Gisberten ustez, ez litzateke irtenbide egokiena Gruire gaztarena gertatuko bailitzateke, toki batzuetan lortuko lukete telebista ikustea, beste batzuetan ez... Bestetik, lege babesa lortu nahi dute. Berez, eskaera horrek badu oinarri juridikoa, Erregio edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Gutunak eskaintzen baitu. Honela dio 11.2. artikuluan: "Alde guztiek irrati zein telebista emisioak zuzenean jasotzeko eskubidea bermatzeko konpromisoa hartzen dute, bizilagun diren herrialdeetan erregio edo hizkuntza gutxiagotu berbera edo antzekoa erabiltzen badute, eta ez dute oztopatuko ondoko herrialdeetako telebista edota irrati emankizunak hizkuntza horretan ematea (...)". Espainiako Gobernuak 1992an sinatu

zuen Gutuna eta Parlamentuak berretsi 2000. urtean. Onarpena badu, zein da arazoa? Europako Gutuna ezartzea.

Hori lortu dadin, lege proiektua idatzia dute eta ekimen legegile herritarra abian jarria. Horrek esan nahi du 500.000 sinadura bildu behar dituztela. 300.000 sinadura bilduak dituzte eta hemendik eta martxoaren 24ra bitartean horretan arituko dira. Sinadura bilketarako kanpaina indartsuena katalan hiztunen lurraldeetan egin dute. Herritarren babesa handia izan da. Herrialde Valentziarrean esate baterako, sindikatu eta alderdi politiko guztiek, PPk salbu, babestu dute kanpaina. Hainbat udaletan aho batez onartu da kanpainaren alde egitea, PP barne.

Pujol, Maragall, Laporta...

Ea 500.000 sinadurak lortzeko moduan izango diren galdetu diogu Gisberti. Esan digu uste duela baietz, baina lortzen ez bada ere ahalegina alferrikakoa ez dela izan garbi dute. Milaka eta milaka herritarrek hartu dute parte kanpainan, sindikatu, alderdi politiko eta erakunde publikoen babesa lortu dute. Esate baterako, ekimen legegile herritarren batzorde bultzatzailean izen esanguratsuak daude, hala nola, Felix Pons (Espainiako Parlamentuko presidente ohia), Pasqual Maragall eta Jordi Pujol (Kataluniako Generalitateko presidente ohiak) eta Joan Laporta (Futbol Club Barcelonako presidentea).

Gisbertek argi du, "inoiz ez dakizu PPko Gobernuak zer egingo duen. Alabaina, urduri dago Gürtel kasua dela-eta, Valentziako Cabañal auzoko kontuak direla... Uste dut ez zaiola komeni su gehiago piztea, itzaltzea bai, baina nork daki zer egingo duten...". ■

Babeslea: Hondarribiko Udala



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Gazteak zergatik euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez...

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK Urtxintxa eskolarekin eta Topagunearekin batera gazteen hizkuntz erabileran eragiten duten faktoreak aztertu ditu. Azterketaren emaitza Soziolinguistika Klusterraren webgunean dago: www.sociolinguistika.org

“Queremos Galego”ren manifestazioa

JOAN DEN ASTEAN milaka pertsona elkartu ziren Santiagoko Obradoiro plazan (25.000 laguntzako toki du)

Gobernua prestatzen ari den Galegoaren Dekretuaren aurka protesta egiteko. Queremos Galego plataforma herritarrak antolatu zuen hezkuntza publikorako deitutako greba. Dekretu horrek galegoaren presentzia %50etik %33ra gutxituko luke eta gurasoek aukeratuko lukete zein hizkuntzatan jasoko lituzketen euren seme-alabek nahita-nahiezko ikasgaiak.

Konpasaren teoria

TXERRA RODRIGUEZEN *garaigoikoa* blogean aurkitu dugu ondoko pasartea. Rodriguezek erandioar batek erabili ohi duen konpasaren teoria jaso du blogean. Erandioarrak teoria hori darabil Erandio Goikoako euskal

komunitatearen gesaltzea azaltzeko. Hara Rodriguezen kontakizuna: “Erandioko eliza zentrotzat hartuta, konpas batekin marrazten baduzu mapan, elizatik gero eta urrunago, orduan eta ‘euskaldunago’. Hau da, Erandioko elizatik abiatuta, zirkuluak egiten hasiz gero, Erandioko euskal komunitatearen gesaltze prozesuaren argazki paregabea lor dezakezu. Berak dioen moduan [erandioarrak], salbuespenak egon badaude, baina hori dira, salbuespenak. Eta, gaineratzen du, salbuespen horiek burugogorak izateagatik direla. Burugogor politikoak: hau da, elizatik hur bizi arren, euskal nortasun politikoa garatuta zuten gurasoek transmisioa bermatzen zuten, bestela ez”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@doan.euzkadi.net) e-postaz: www.argaia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Laborantza Ganbera defendatu

Joan den astean egin zuen, Ainhize-Monjolosen, Ipar Euskal Herriako ezinbesteko bihurtu den Euskal Herriko Laborantza Ganberak (EHLG) bosgarren urteurren ekitaldia. Ezin da ahaztu Damoclesen ezpata mehatxuka dutela elkarteak eta arduradun nagusiek, Frantziako Estatuak bul-tzatutako beste epaiketa bat egingo delako otsailaren 18an Paueko Auzitegian. Hala ere, erakundeak zilegitasun osoa du, bost urte hauetan Ipar Euskal Herriko ingurumenera eta giza ingurura egokitutako eta nekazaritza jasangarriaren alde egindako jardueragatik.

Laborantza Ganberak bosturteko honetan 1.200 laborariri eragin dien 2.000 jarduera baino gehiago egin ditu. PAC-ak (Laborantza Politika Komuna) ematen dituen laguntzen tramitazioarekin erlazioatutako jarduerak, esplotazio berrien instalazioarekin zerikusia dutenak, uraren erabilaren inguruko diagnostikoak, formazio zikloak, konferentziak, ekitaldi publikoak... eta abar. Azken batean, Laborantza Ganberak lan egin du bestelako nekazaritza eredu bat eraikitzeko. Horregatik guztiagatik zorionak.

Hala eta guztiz ere, erne ibili behar da, zeren eta badirudi Frantziako Estatuko Prefekturaren interesak beste bide batetik doazela. Eta horregatik, Paueko otsaileko epaiketa erabakigarria eta berebizikoa da erakunde soziolaboral horren etorkizunerako. Erakundearen izenaz gain, Laborantza Ganberaren jarduera bera ere ezbaian dago. Osotasunean eraso zaio, edukari eta edukiontzia, eta proiektu guztia da defendatu behar dena. Beraz, Euskal Herriko babes sozial, laboral, sindikal eta politiko osoa behar du. Bai jaio zenean eta baita bosgarren urteurrenean ere jaso duen babes berbera.

Juan Mari Arregi

Karmen Amezua Bizkaie'n esan-nak: “Argi daukagu kirola eta gazteak izango dirala gure lehentasunak. Kirol-kanpaina honen emoitza aztertu ostean, posible da entrenatzaile euskaldunen tailerra martxan jartea eta lan-poltsa bat osotzea. Entrenatzaile euskaldunen faltea dago herri guztietan. Hainbat udalek, eskaera hori egin dogu Aldundian eta Jaurlaritzan. Eta entidade horreen bitartez, kirol federazioak hitzarmenak lotu beharko litzateke; entrena-tzaile tituluak euskaraz atarateko aukerea, dirulaguntzinoak, arbitro euskaldunak, komunikabide eta goi-mailako kirol taldeetan euskerearen presentzia gehi-tzea... (horrek, eragina izango dauelako herrietako kirolaria-kan) (...) Koikili edota Athleti-cen izenean ikastaroa emon, edo Berrizko Udalaren izenean emon, alde handia dago eta guk gazteentzat inportanteak diran pertsonak ekarri gura izan doguz gazte horreek euskerara erakarteko”.

Borroka

EGUNKARIA AUZIA azken txanpan sartu da eta oraindik ez da inondik inora ikusi akusazioaren funtsik, hau da, *Egunkaria* ETaren aginduetara egon zela eta akusatuak etakideak direla. Ez zen agertu instrukzio osoan eta orain epaiketan ere ez; salaketen arrastorik ez eta akusazioen lekukoaren ahultasuna barra-barra. Guardia zibil itzultzailearena latza izan zen: euskaraz zerbait ulertu bai, akusatuei egindako entzuketaren itzulpenak epaileari egin ere bai, eta gero elkarrizketa bat izateko gai ez litzatekeela aitortu zuen.

Epaiketa-esperpento honetan emaitza akusatu guztientzako absolutzioa besterik ezin da izan, baina hori epaimahaiak erabaki behar du. Eta ezin da ahaztu beste epaiketa-esperpento batzuetan, antzeko epaimahaiak erabaki izan dutena: horietako adibide ikusgarriena 18/98 auzia izan zen, eta hartako auzipetu gehientsuenak espetxean dira.

Egunkaria-ko auzipetuek euskal gizartearen gehiengo oso zabalaren aldetik jasotako elkartasunak area-gotu egiten du fiskalik gabeko epaiketa honen fikzio itxura. Bada ordua zazpi urteko iruzurrari emaiara emateko eta, absolutzioarekin batera, kalteordainen bideari ekiteko.

EUSKO ALKARTASUNAKO buruzagiek jakinarazi dute aukeretako bat dela hauteskundeetara Batasunarekin batera joatea. Eta Jaurilaritzako bozeramaile Idoia Mendiak berehala egin du bere interpretazioa eta galdera: utzi egin behar dizkio EAK bere siglak ezker abertzaleari? Zeharka dagoen mehatxua argia da, EARI EAE-ANVri bezala gerta dakiokela alegia.

Eta bai, zalantza barik hala izan daiteke, baina denak adierazten du EAK halako urratsik ematen badu, Batasunak beste batzuk jorratuko dituela. Eta baita ETAk berak ere seguruena. Denak adierazten du pilota oraingoan Espainiako Gobernuaren teilatuan geratuko dela. Denak adierazten du euskal esparru politikoa mugitzera doala eta jadanik hasi garela horren lehen aztarnak ikusten. Egoera berriak ekar dezakeenaren beldur, ezpatak tente dira alderdi abertzaleen etxeetan. NaBai izan daiteke horren erakusle argiena, eta ikamiketarik ondorioztatzen dena da oraindik ez dagoela ezer argi. Akatsa da egoera berrien aurrean etengabe barrura begiratzea, baina ohikoa da alderdi eta erakundeetan. Herritarren gana eta gizartera begiratu eta haien asmoak egokien interpretatzen ditue-

nak aterako du etekin gehien egoera berri horretatik. Baina horretarako begiratu egin behar da eta ahal bada hitz egin, bai jendearekin bai gizarte eragileekin.

AURREIKUSI BEZALA, gero eta gehiago ari zaio begiratzen ETaren azken komunikatuari. "Borroka" hitzaz egiten duen erabilerak iruzkin ugari (Imanol Murua, Iñaki Aldekoa...) ekarri ditu; indefinizioz erabiltzen ei du borroka hitza. Tasio Erkiziari, antza, garrantzitsua irudituzitzaion "borrokaz" berak zer ulertzen zuen adieraztea eta luze jarduen zuen horri buruz urtarilaren 20an *Gara*-n idatzitako artikuluan. "Borroka da bide bakarra" oihukatzen da manifestazio askotan, gazteen aldetik bereziki. Askok ulertzen du borroka armatuari egiten zaiola erreferentzia horrekin eta Erkiziak zehaztu beharra ikusi bide zuen: borroka bai, baina borroka molde ugari aipatzen zituen eta instituzionalari lerro ugari eskainiz gainera. Urteetan HBko kargu publikoek egindako lana eta estiloa goraipatzen zuen. Eta bazirudien garai hura ezagutu ez zutenei zerbait azaldu nahi ziela.



Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Ayiti-Haiti, globalizazioaren arragoa 1492tik

Azkentzea izan da Haitirentzako urtarilaren 12ko lurrikara, errematea. Ekonomian, kulturen, egitura sozialetan, ekologian... hirugarren munduko herritar eta nazio askok bizi duten erabateko hondamendiaren adibide muturrekoa zen Haiti aspalditik. Hala jarraituko du, ezustekorik ezean.

CRISTOBAL COLON 1492AN IRITSI zenean La Española bataiatuko zuen ugartera, bertan ia 500.000 herritar biziko ziren, Taino etniakoak, Arawak multzoko hizkuntza batean mintzo zirenak, egitura politiko, sozial eta ekonomikoen jabe. Dena galduta, inbaditzaileen kontrako borrokan hil zuten Anacaona erregina barne, hogeitaz beranduago 10.000 besterik ez ziren. Gainerakoak espainiarrek ekarritako gaixotasun berriez gain urre meatzetan derrigortuta egin beharreko esklabu lanek eta kolono berrien tratu basatiak suntsitu zituzten.

Bertakoek Kiskeya deitu herrialdean geroztik gertatua munduko hamaika lekutan aurki daiteke, Kongon bezala Bolivian, baina nekez jokatu du europarrok zibilizazioa deitu dugun horrek munduan beste inon Haitin bezain errukigabe.

Jatorrizko Taino jendea kasik desagertuta, Espainiako Carlos I.ak 1517an agindu zuen La Española birpopulatu zezatela Afrikatik eramandako esklabu beltzekin. Bigarren hondamendia erantsiz –Afrikaren odolustea– lehenbizikoari. La Españolan ugari omen zen urrea ateratzeko.presa zeukaten espainiarrek.. eta are presa handiagoa enperadorearen bankero germaniarrek urre hura kobratzeko, konkistarako aurreratutako kredituen trukean.

Hain handia izaki hango urre, esklabu eta gaineratikoen trafikoa, Kariberako ataria zen La Española-ko itsas hegia bihurtu zen klase guztietako pirata, bukanero eta kortsarioen paradisu. Horien artean aipatzen da Jean Lafitte, askok Port-au-Princen jaiotzat baina beste batzuek Baionan sortutzat jo izan dutena.

1697an Espainiaren eta Frantziaren artean zatiturik, gaur Haiti dena Saint Domingue deitu zen luzaz, eta Frantzia osotik –tartean *Sud-Ouest* deitutik– joandako 30.000 kolono bertaratu zen. Laster bihurtuko zen Frantziaren kolonietan emankorrena, klima eta lurzoru aberatsen jabe izaki, hartan azukre, kafe eta indigo produkzioak zuten oparoak zirelako. Etekinen trukean, Afrikatik eten barik ekarri behar ziren esklabuak, plantazioetan bizi laburra zutelako, ugazabek ematen zieten tratu basatia zela medio.

1789an Frantziako Iraultza gertatzean Saint Domingueko beltz askok uste izan zuten esklabutza bertan amaituko zitzaizela. Hala ere 1791ean matxinatu behar izan zuten, eta Pariseko Konbentzioak 1793an onartu zuen esklabutzaren amaiera.

Matxinada haren buru Toussaint l'Ouverture esklabu ohia izan zen. Hona beste paradoxa bat: gerrako

Allyson Ingerman-ek kudeatzen duen *Imgihe* this gunetik hartutako argazkia: emakumea buztinezko opilak prestatu eta lurrean zabaltzen ari da, eguzkitan lehortu, eta saltzeko... janarizat. Haitiar askok umetatik buztinezko opilak kontsumitzen dituzte, janaririk ezean goseak eragindako tripako minak goxatzeko. Gosetea oso zabalduta dago Haitiko hiri-txabolategietan. Duela hogeitabost urte arte bertako janaria bertan sortzen zen arren, Munduko Bankuak ezarritako politika neoliberalen ondorioz gaur Haitik elikaduraren hiru laurdenak inportatu behar ditu, baina nola ordaindurik ez dauka. AEBk honuntza bidali dituzte, laguntzen atalean sartuta, soberakinak eta baita gai susmagariak ere, milaka haur gaixoarazi zituzten oilasko hormonaztatuekin ikusi zen bezala.

teknikak armada frantsesean ikasiak zituen Estatu Batuen independentzia gerran ingelesten kontra laguntzera joanda.

Baina Napoleon Bonapartek bere burua enperadore izendatu ondoren esklabutza berrezarri zuen –Frantziako jakobino askok gaur ahaztu nahiko luketen arren– eta haitiar beltzek bigarren aldiz oldartu behar izan zuten. Honetan engainuz preso hartuta hil zuten frantsesek Toussaint l'Ouverture eta haren laguntzaile Jean Dessalinesek sinatu zuen gerra. Bidean hil ziren 100.000 beltz eta 20.000 kolono.

Hondamendien laborategi

Ez da ahaztu behar Estatu Batuetan bertan esklabutza indarrean zegoela garai hartan. Gerrak egitura ekonomiko osoa –esklabutzan oinarritua– deuseztaturik, esklabu libratu berriak oinarritzko jakintzarik gabeak izaki, bideragarritasuna aurkitzen ez zeukan errez estatu berriak. Baina inperio kolonialek oraindik pittin bat gehiago okertu zezaketen Haitikobizimodua.

1825ean Frantziak armada bidali zuen Haitira independente jarraitzekotan baldintza berriak ezartzera: 150 milioi libera urrezko ordaindu beharko zituen. Haitiarrek odolez irabazitako askatasuna bigarrenez eskuratu behar zuen, dirutan.



Gainerako estatu indartsuek erabateko boikota ezarri zieten, gainera.

Haitik 200 urteotan 32 kolpe militar jasan ditu, eta diktadore bakan batzuek at inongo agintarik ez du lortu betekizuna era egonkorrean burutzerik. Tartean AEB bihurtu zen Ameriketako potentzia nagusi, XIX. mende bukaeratik behin eta berriro esku hartuz Haitiko bizimoduan. Zeharka, beti; zuzenean, armada bidalita, sarritan.

1914an, herrialdean bizi zen borroka giroa aitzakiatzat hartuta, Alemania, Britainia Handia, Frantzia eta AEBetako armadek inbaditu zuten Haiti. Amerikarrak 1934 arte geratuko ziren bertan. Alde egin zutenean, Haitik falta zituen batetik Banku Nazionaletik mari-

neek eraman zituzten 500.000 dolarrak eta bestetik AEBetako bankuekiko Haitik hartu zuen 40 milioi dolarreko kredituaren katea.

1957tik 1986a arte luzatuko zen Duvalier familiaren aginte totalitarioa. François *Papa Doc* estraina eta Jean-Claude *Bébé Doc* gero agintari terrore erabilitzaile basatiak izan ziren; garai haietan munduan fama- tu egin zen haien armada pribatua, *Tonton Macoutes* deitu matoi eta gorilaz osatua.

Duvaliertarren agintea 1986an bukatu zen, demokrazia eta bizimodu duinagoa eskatzen zituzten herritarren mobilizazioak ikusirik AEBko gobernuak Frantziarekin negoziatu zuenean *Bebe Doc* eta haren ingurukoen atzerriratzea.

1986tik gaurdainoko Haitiren bilakaera politikoa esplikatzeko gizon baten lan, indar eta kontraesanak azaldu beharko genituzke: lau aldiz presidente izatera heldu eta lautan agintetikbota duten Jean-Bertrand Aristide apaiz ohiarena. Beste NET HURBIL bat osorik beharko litzateke.

Haiti mundu honetako infernua dela esan da. Ziurrenik zehaztasun gehiagoz idatzi liteke Haitin arragoa edo laborategi batean bezala bildu direla azken 400 urteotan munduko jende txiroenei ezarri zaizkien zapalkuntza guztiak.

Gaur egun herritarren %1ek pila- tzen du Haitik daukan aberastasun osoaren erdia, eta jendeen %80 egunean 2 dolar baino gutxiagore- kin bizi da. Egitura politiko, ekono- miko, sozial eta kulturazko guztiak atzerriko esku hartzeen poderioz behin eta berriro suntsitu zaizkio. 1.309 milioi dolar zor ditu. Aspal- ditik dago industriarik eta kasik arti- sautzarik ere gabe.

Azken hamarkadotan nekazari- tza suntsitu diote, AEBetatik merke inportatuz han subentzioz lagundu- ta produzitutako janariak eta base- rritar haitiarrak arruinatuz. Heme- roteketan aurki daitezke hormonaz hazitako oilaskoek Haitiko haurre- tan egindako kalte ikaragarriak. Laurogei urteren buruan zuhaitzik gabe geratu da, mixeriaren mixeriaz.

Argi esanda: Haitik ez dauka ez itxaropenik eta ez etorkizunik. Bal- din eta potentzia handiek erabaki- tzen ez badute mundu osoarentza- ko dela kaltegarria milioika herritar infernuetan sartuta edukitzea. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Santi Leone

Eguraldia gorabehera

Urte hasieran, urtarrilaren 2an, honako hau entzun nuen Espainiako Radio Nacionalean: azken Euskobarometroaren arabera, Euskal Autonomia Erki-degoko hamar biztanletik zazpik ez dute konfiantzarik batere, edo arras konfiantza guti dute, gaur agintean dagoen gobernuan. Egun hartako solaskide guztiek, aho batez, harrigarritzat jo zuten ehunekoa, haien iduriko nahiko ongi ari baita oraingo lehendakaria. Badugu, beraz, abiapuntua: inkestek diotena diotelarik, ederki ari da Patxi Lopezek gobernua eta, zerbait aldatzekotan, inkestaren zentzua aldatu beharko lukete kazetariak, ez beren iritzia. Eta hala egin zuen saioko parte-hartzaile batek: %70en gaitzespena handia da, jakina, baina kontuan hartzen badugu hauteskundeetan hautesleen %20k bertzerik ez zuela PSE bozkatu, orduan ohartuko gara Lopezek bertze %10 erantsi diola hasieran zeukan konfiantza kopuruari. Hortaz, segitu zuen irratiko kazetariak, egunkari batek erran lezake, eta arrazoi osoz, gaurko Eusko Jaurlaritzak hamar biztanletik soilik hiruren babesa duela, baina hori bezain zilegi izanen litzateke adieraztea lehendakariak, oso denbora laburrean, %10ean zabaldu duela herritarren artean duen onespena. Azalpenak ez zuen objektiorik sorrarazi solaskideen artean. Horri, nonbait, Espainiako Radio Nacionalean, inkestak interpretatzea deitzen zaio.

Babes urria izan ez, baizik eta, egindako lanari esker, lehendakaria konfiantza zabaltzen ari dela argitu zigun kazetariak bazeukan, badaezpada ere, bertze inkesta bat eskura. Hau urtero egiten da, Estatu osoan, eta Espainiako politikaririk maitatuena nor den zehaztea du helburu. Hainbat urtez, Madrilgo alkateak lortu izan du espainolen agintari gogokoena izatea. Aurtan, aldiz, Patxi Lopezek eskuratu du saria. Bigarren inkesta honek, beraz —ondorioztatu zuen Radio Nacionaleko kazetariak—, lehendabiziko hura zuzendu



JOSU SANTESTEBAN

ez ezik, haren arrotasuna, haren anormaltasuna, agerian uzten du.

Bi inkestek eta haien interpretazioak hiru gogoeta egitera gonbidatzen dute, nire ustez.

Lehena, zenbakien ustezko objektibotasunari buruz. Argi dago Euskobarometroko datuek ez zietela iritzia aldarazi irratiko kazetari haiei. Datuak harrigarri gertatu zitzaizkien, iritzia ona baitzuten.

Patxi Lopezek ordura arte egindakoaz, baina, haren babes eskasa ikusitakoan, oker ote zebiltzan edo datu haien zergatikoa z galdetu beharrean, berehala hasi ziren zenbakiak “interpretatzen”, beren aurreiritziak eta jasotako datuak bat etor zitezen. Hau da, inkestaren emaitzak alde zurretiko iritzia araberak behar dira interpretatu, eta ez alderantziz.

Bigarrenak, kasik metafisikoa denak, gauzen neurriaren erlatibotasuna dakarkigu gogorra. %70eko gaitzespena edo %30eko babesa, kopuru handiak edo txikiak izan daitezke, segun eta nor dituen. Euskobarometroak datu horiek berberak eman izan balitu bertze kolore bateko Jaurlaritza bati buruz, ez dut uste Radio Nacionaleko kazetariak horrela marruskatuko zituzketenik zenbakiak, haiek nahi zutena erran zezaten.

Hirugarren gogoetak, zeharka bada ere, eguraldiarekin du zerikusia. Kazetariak

altxatua zuen bigarren inkestak argi erakusten du nor dagoen pozik Patxi Lopezek gobernuarekin, eta, batez ere, noren kontentua zaien axola Madrilgo hedabideei. Denen gustura euririk behin ere ez, baina irudipena dut balizko euriak, zirimiria edo erauntsiak bustiko dituenen iritzia hartu beharko litzatekeela kontuan, eta ez urrun eta eguzkipean bizi direnena. EAEko azken bolada honetako klima aldaketek akaso poz izugarria eragin izanen dute, demagun, Extremaduran, baina bitxia da, zer nahi duzue erratea, mapak ikusiko ez dituztenendako prestatzea, eta ez ikusiko dituztenendako. ■

« Inkestek diotena diotelarik, ederki ari da

Patxi Lopezek gobernua eta, zerbait

aldatzekotan, inkestaren zentzua aldatu


beharko lukete kazetariak, ez beren iritzia.

Eta hala egin zuen saioko parte-hartzaile

batek: %70en gaitzespena handia da, jakina,

baina kontuan hartzen badugu... »

ASTE HONETAKO zozketa



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

Pº Mikeletegi, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1



Norman

3 CD opari

Gaztelupeko hotsak

www.hotsak.com

2



Artez euskara zerbitzua

4
urteagenda

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

3



Artez euskara zerbitzua

5
egutegi

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Ziztadak

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

ONDARRE LANDETxea

• Kandido Agirrezabalategi Kortabarria (Deba)

ILLIMANI

• Tere Alonso Herreros (Gasteiz)
• Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)

MUNDUKO IPUINAK

• Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)
• Karmelo Busturia Jimeno (Donostia)

THE USKIS

• Erramon Egurrola Zabala (Aulesti)
• Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)
• Bittor Kortabitarte Diego (Bilbo)

LAIA

• Irati Lujua Etxenike (Etxalar)
• Miren Eraña Gallastegi (Aretxabaleta)
• Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

ZAZPI haizetara

HARPIDETU!

15 euro urtean • 11 ale

ORAIN HARPIDETUZ GERO,

HONAKO HAUEK JASOKO DITUZU OPARI:

- PIOLET ITXURAKO GILTZATAKO BAT
- ZUK AUKERATZEN DUZUN MUGALARIKO GIDA

(NEW YORK, HABANA, BERLIN, PARIS, LONDRES, AMSTERDAM, LISBOA EDO BARTZELONA)
*IZAKINAK AGORTU ARTE



BIDAL EZAZU KUPOI HAU HONAKO HELBIDE HONETARA:

ZAZPI haizetara

Zazpi Haizetara
Portuetxe 23, 2. solairua
20018 Donostia (Gipuzkoa-EH)

Nahiago izanez gero, posta elektronikoko mezu bat bidal dezakezu zazpihaizetara@astero.net helbidera kupolan azaltzen diren datuekin. Astelehenetik ostiralera 10.00etatik 17.00etara 943316999 telefono zenbakira deituta ere harpidetu zaitzake.

Ale bakoitzaren prezioa kioskoan 2010. urtean: 1,5€
Urteko harpidetza:

Euskal Herrian: 15€
Estatu espainolean: 18€
Europan: 50€

Izena.....
Helbidea.....
Posta kodea..... Herria.....
Herrialdea..... Telefonoa.....
NAN..... E-posta.....
Bankua..... Txartelaren jabea.....

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Aukeratu nahi duzun gida: ☐ New York ☐ Habana ☐ Berlin ☐ Paris ☐ Londres ☐ Amsterdam ☐ Lisboa ☐ Bartzelona